

Paisaiari buruzko Katalogoak eta Gidalerroak egitean HERRITARREK izandako PARTE-HARTZEari buruzko memoria

- ✦ Enkarterri
- ✦ Arabako Errioxa
- ✦ Urola Kosta



Aurkibidea

	<u>Orrialdea</u>
1. Testuingurua	3
2. Proiektuaren helburuak	11
3. Hartzaileak	13
4. Prozesuaren plangintza orokorra	15
5. Ekintzak eta emaitzak	198
6. Herritarren balorazioa prozesuari buruz	204
7. Genero ikuspegia prozesuan	212

1-Testuingurua



2009tik, Euskadik **Paisaiaren Europako Hitzarmenarekin** bat egin zuenetik, EAEk estrategia berri bat jarri zuen martxan, **PREMISA** hauek oinarri hartuta, paisaiaren aldagaia lurralde plangintzan txertatzeko:

- Paisaia “**lurraldearen edozein zati da, biztanleriak hautematen duen moduan**, eta natur edota giza eragileen ekintzaren eta elkarrekintzaren ondorioa da”.
- Paisaia oinarritzkoa da jendearen **bizi-kalitatearentzat** eta euren ondare komuna, kulturala zein naturala, adierazten du. Gainera, lagundu egiten du lurralde baten nortasuna osatzen.
- Paisaiak **ahalmen ekonomiko argia** du (turismoa erakartzeko, kalitatezko gastronomia, etab.).
- EAEko paisaien aberastasun eta dibertsitatea interes orokorreko baliabide eta ondare komuna dira, ingurumen, kultura, gizarte, historia eta ekonomiaren garapenean.

Aitzitik, paisaien eboluzioak ez ditu beti errespetatu bere balioak. Zenbaitetan, lurraldearen eraldaketak zenbait paisaia uniformatu eta degradatzea ekarri du.

Horregatik da beharrezkoa paisaiak duen balioaren **sentsibilizazio eta kontzientzia** kultura zabaltzea

Paisaia ulertzeko modua subjektiboa da. Beharrezkoa da herritarrek parte hartzea

Horregatik guztiagatik, baliabide honen ahalmena zukutzeko, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu Sailak, Lurralde Plangintzako Zuzendaritzaren bitartez, paisaian gauzatzeko zenbait ekintza bultzatu ditu: Paisaiaren Legea, Paisaiari buruzko Katalogoak eta Gidalerroak eta UPV/EHUren Paisaia Masterra, besteak beste.

Paisaia ulertzeko eta baloratzeko modua oso subjektiboa da, eta horregatik oso garrantzitsua da herritarrek gure inguruko paisaiak ulertzeko eta baloratzeko prozesuetan parte hartzea.

Paisaiari buruzko Katalogoak eta Gidalerroak egiterakoan herritarrek parte har dezaten Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza Sailak bultzatutako ekintzak jaso dira memoria honetan.



Paisaia lurralde plangintzan txertatzeko, EAEko Lurralde Plangintza Sailak hainbat ekintza bultzatu ditu, EAEko paisaiak ordenatu, kudeatu, babestu eta haien balioa handitzeko.

Koadro honetan jaso da Eusko Jaurlaritzak paisaiaren inguruan daukan estrategia:



EAEko PAISAIAREN LEGEA da paisaiaren inguruko politikak zehaztu eta aplikatzeko erreferentzia markoa, euskal paisaiak kudeatu eta hobetzeko araudi juridikoa eta baliabideak ematen dituelako.

Paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko beharrezko **TRESNAK** zehazten ditu testuak, hau da: paisaiari buruzko Katalogoak, Gidalerroak, ekintza Planak eta paisaia integratzeko Ikerketak.

Katalogoak

KATALOGOAK gure lurraldea osatzen duten paisaiak babestu, kudeatu eta antolatzeko tresnak dira. Euskadiko paisaiak beren eremu funtzioaletan aztertu eta ebaluatzen dituzte, eta kalitatezko helburuak proposatzen dituzte horietarako.

Gidalerroak

GIDALERROEK kalitatezko paisaia lortzeko helburu proposamenak araututa txertatzen dituzte lurralde plangintzan.

Ezinbestekoa da Katalogoak eta Gidalerroak egiteko prozesuetan, **herritarren eta administrazioen arteko elkarlan handia lortzea**, paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko hartzen diren erabakiak herritarren (banaka nahiz taldeka) eta administrazioen inplikazioaren ondorio izan daitezkeen, hala zehazterako orduan, nola paisaiari buruzko politika publikoak ezartzerakoan.

Horregatik, administrazioak **parte-hartze** prozesu bat bultzatu du, herritarrek arlo hauetan lagundu dezaten:


- Bizi diren paisaia ulertu eta baloratzea.
- Paisaia eraldatzerakoan zerikusia izan duten dinamikak ulertzea.
- Aukerak eta arriskuak ikusten jakitea.
- Paisaia kalitatearen helburuak eta etorkizuneko neurri egokiak finkatzea.

Guardia (Arabako Errioxa), Balmaseda-Zalla (Enkarterri) eta Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) eremu funtzionaletan Paisaiari buruzko Katalogoak eta Gidalerroak egiteko prozesuan, lurralde bakoitzeko herritarrek eta gizarte eragileek modu aktiboan hartu dute parte, eta paisaiaren balioei buruzko sentsibilizazio prozesu orokor bat hasi da.

Lema hau aukeratu zen Paisaiari buruzko Katalogoak eta Gidalerroak egiterakoan herritarrek parte hartzera bultzatzeko:

“Zure paisaiaren hitzetan zu; zure hitzetan, paisaia”

Hiru eremu funtzionaletako udalerrriak



Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak hasieratik izan du lehentasunetako bat gobernu onaren printzipioak aplikatzea lurraldea antolatzeko politikari:



Ahalik eta herritar gehienek parte hartzea erraztu da printzipio hauek oinarri hartuta:

Gardentasuna

- **Lantzen ari ginen dokumentuak herritarren esku jarri genituen** Eusko Jaurlaritzaren Webgunean, Katalogoak egiteko fase bakoitzean.
- **Etengabe eman genuen informazioa** aurrerapenei eta parte-hartzearen emaitzei buruz.
- Zabaltzeko dokumentuak **hizkuntza erraz eta didaktikoan idatzi ziren**.

Konfiantza eta entzutea

- **Zentsurarik ez**. Galdeketen bitartez jasotako iruzkin kritikoak, esaterako, ez ziren kendu. Galdeketa anonimoek iritzia libreki ematea erraztu zuten.
- Saioetan parte hartzeko gonbidapen irekia egin zen **eta eztabaidatzeko tarte bat egon zen**.
- **Ezohiko bilerak** egin ziren, bezeroek hala eskatuta (Arabako Errioxako eta Enkarterriko eragileek, esaterako) eta aurreikusitako epeak luzatu egin ziren, herritarrek parte har zezaten.

Eskuragarri eta irekia

- **Teknologia berrietatik urrun dauden taldeengana hurbiltzea** (esaterako, Internetik ez dutenei galdeketak inprimatuta emanez edo eremu funtzionaletan aurkezpenak eginez).
- **Komunikazio kanal** bat sortu zen galderak egin eta ekarpenak bidaltzeko (Paisaiaren Postontzia) eta hainbat ordutegi hartu ziren kontuan, eragileek eta herritarrek parte har zezaten.


Lankidetzeta

- **Beste administrazio batzuekin**, udalerrriak (kultura, turismoa, etab.), Foru Aldundiak **eta beste erakunde batzuk** (udal edo sektoreetako elkarteak, etab.) herritarrengana iristeko gakoak.

Gizarteari itzultzea


- Herritarrei erakutsi zitzairen beraien parte-hartzeak balio erantsia eman ziela beraien ardura diren politikei (parte-hartze prozesuak Katalogoen edukia nola hobetzen zuen).

2-Proiektuaren helburuak



Herritarrei Paisaiari buruzko Katalogoak eta Gidalerroak egiterakoan parte hartzeko bidea erraztu zaie, paisaiaren inguruan duten iritzia jaso eta talde teknikoek eginiko lanarekin alderatzeko:

- 1 Herritarrek paisaia nola ulertzen duten eta zer iritzi duten jakin.
- 2 Paisaiari buruzko SENTSIBILITATEA eta INPLIKAZIO sentimendua handitu.
- 3 Paisaiaren kalitateari buruzko helburuak zehaztu eta horiek lortzeko neurriak proposatu.
- 4 KOERANTZUKIZUNA handitu, betetzerakoan eta zaintzerakoan.
- 5 Administrazio publikoak ERAGINKORTASUNA handitu ERABAKIAK HARTZERAKOAN, herritarrengandik gertuago dagoen gogoeta baten ondorio direlako.



Parte-hartze prozesua baina harago doa, administrazioa herritarrengana hurbiltzen duelako, herritarrek paisaiaren inguruan egindako lanei buruz duten ezagutza handitzen duelako, eta EAEko paisaia hobetzen lagun dezakeen dinamika bat sortzen duelako.

3-Hartzaileak



Katalogoek EAEko pertsona guztientzat balio badute ere, herritarren parte-hartzea dinamizatzeko estrategia aipaturiko hiru Eremu Funtzionaletako herritarrei eta horietan eragina duten eragileei bideratu zaie.

Herriz gairdiko eragileak

- Eusko Jaurlaritzako sailetako ordezkariak: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza; Kultura Saila, etab.
- Foru Aldundietako sailetako ordezkariak, Eusko Jaurlaritzari dagozkion edukietan eskumena dutenak.
- Erakunde publiko eta pribatuetako ordezkariak, hala nola, **Unibertsitateak eta eskola profesionalak**, paisaiarekin zerikusia duten diziplinetakoak.

Herri eragileak

- Toki administrazioetako ordezkariak: udalak, mankomunitateak eta udal elkarteak.
- Paisaiari loturiko ekonomia sektoreetako ordezkariak: nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza, nekazaritza elikagaien industriak, paisaian eragina duten industria bakartuak, turismo enpresak, etab.
- Gizarte erakundeetako ordezkariak: ondarea kontserbatzeko erakundeak, talde ekologistak, bidaia eta kirol taldeak, etab.

Herritarrak

- Paisaiarekin zerikusia duten gaietan aditu diren pertsonak, norbanako gisa joatean direnak. Tokiko historian, ondarean, eta bestelakoetan espezialistak.
- Eremu funtzionaletan jai, bizi edo lan egiten duten herritarrak, eta aisialdian, turismo, kirol edo bestelakoengatik eremu funtzionalak bisitatzen dituzten pertsonak.

4-Prozesuaren plangintza orokorra



Internet, bere baliabideak eta online sareak izan dira prozesuan **Parte-hartzeko bide nagusiak**, baina parte hartzeko aurrez aurreko bideak ere erabili dira, hala nola, elkarrizketak eta partaidetza mahaiaik:



✦ Eraginkortasuna

- ✦ Dohako baliabideak, galdeketak eta bideoak egiteko.
- ✦ Herriko bazkideen egoitzak kosturik gabe erreserbatu, aurrez aurreko bilerak egiteko.
- ✦ Dokumentu eta material grafikoak **formatu elektronikoa**n, proposatzen diren gaiak errazago ulertzeko.

Hauek dira herritarrek parte hartzeko ezarri diren teknika nagusiak :

1	Aurrez aurreko elkarrizketak eragileekin	1. etapa 2. etapa		
2	Partaidetza mahaiak herriko eragileekin eta herritarrekin	1. etapa 2. etapa 3. etapa	Non	<ul style="list-style-type: none"> • Arabako Errioxa • Enkarterri • Urola Kosta
3	Herritarrentzako galdeketa elektronikokoak	1. etapa 2. etapa		



Nola jakinarazi Katalogoen eta Gidalerroen ekimena herritarrei

4-Prozesuaren plangintza orokorra


Faseak Zeregina	0 PRESTAKETA	1 BALIOAK ETA DIAGNOSIA	2 HELBURUAK ETA JARDUTEKO NEURRIAK	3 GIDALERROAK	4 KATALOGO ETA GIDALERROEN AURKEZPENA	5 PARTE-HARTZE PROZESUAREN MEMORIA
K Eragileen inbentarioa egin						
Aurkezpena	Ekimena eragileei	Ekimena hedabideei			Eragileei eta herritarrei	
Aurrez aurreko elkarrizketak eragileei						
Galdeketak herritarrei						
Partaidetza mahaia						
Herritarren parte-hartzea dinamizatu	Bideak prestatu	Hainbat bideetatik jakinarazi eta zabaldu (web orria, emaila, Facebook, Irekia)				







Hauxe da katalogoak egiteko etapa bakoitzean egin den prozesua:



5-Ekintzak eta emaitzak



Paisaia eragileen inbentarioa egitea

Irailean Eremu Funtzional bakoitzerako paisaia eragileak identifikatu ziren eta zerrendak osatu.

Helburuak

- Eremu funtzionaleko paisaia eragileen zerrenda bat egin, haiekin harremanetan jartzeko.
- Etorkizuneko Paisaiaren Behatokiaren oinarri izatea.
- Herriko eta herriz kanpoko eragileekin harremanetan jartzeko **datuak identifikatzea**.
- Inbentarioan jasotako pertsona guztiekin emailaz edo telefonoz jarri ginen **harremanetan** elkarrizketa, online galdeketa edo partaidetza mahaietan parte har zezaten eskatzeko.
- **Trazabilitatea:** Katalogoak egiteko faseetan izandako parte-hartzea jaso zen inbentarioan.

ERAGILEAK	Arabako Errioxa	Enkarterri	Urola Kosta
Udalak	15	10	11
Eragile sozioekonomikoak	21	27	22
Herriz kanpoko eragileak	33	35	19
ERAGILEAK GUZTIRA	69	72	52

193
eragile

Telefonoz eta emailez harremanetan jarritako pertsonak/erakundeak

Harremanetan jarritako pertsonak				
Kontaktu motak		Arabako Errioxa	Enkarterri	Urola Kosta
Herritarrak	Norbanakoak, elkarteak, ostalaritza, merkataritza, turismo saltokiak, etab.			
KONTAKTUAK GUZTIRA		310	327	312

949
pertsonekin
zuzenean
harremanetan



- Deialdiak beraien **kontaktu zerrendetan** zabaltzeko eskatu zitzaizen (galdeketak, partaidetza mahaiak, etab.) erakunde edo elkarteetako ordezkari.
- Partaidetza mahaietara beraien erabakiz joan zirenei **Eremu Funtzionaletan Internetez identifikaturiko kontaktu berriak** gehitu zitzaizkien.

Aurkezpenak herriko eragileei (Udalak eta Foru Aldundiak)

Helburuak

- Lurralde Plangintza Sailak paisaiaren inguruan egindako ekintzen berri ematea.
 - Paisaiari buruzko Katalogo eta Gidalerroen ekimena aurkeztea, helburuak, Eremu Funtzionalerako onurak eta jarraitu beharreko metodologia.
 - Udalei laguntza eskatzea ekimenaren berri emateko eta parte hartzeko, ahalik eta eremu handienara iristeko. Bilerak egiteko egoitzak uzteko ere eskatu zaie.
-
- **Hiru aurkezpen saio irailean**, partaidetza mahaietan antolatuta.
 - Gonbidapenak bidali udaletako alkateei eta hiru Foru Aldundietako Nekazaritza, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzei.
 - Aurkezpenaren egitura:
 - Eusko Jaurlaritzak ekimena aurkeztu (45 minutu). Eremu Funtzionaleko erredakzio taldearen eta parte-hartze taldearen laguntza, saioa dinamizatu eta gidatuz, ahalik eta parte-hartze handiena lortzeko.
 - **Eztabaida** bertaratzen direnekin (45 minutu).

3 aurkezpen
Katalogoei buruz
31 eragileri

- Tokiko administrazioen zeregina oso garrantzitsua izan da parte-hartze prozesu honetan, eta parte hartu dute Katalogoak eta Gidalerroak egin eta zabaltzen. Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren eta tokiko agintarien arteko **komunikazioa etengabea** izan da **hasieratik**.
- Paisaiak ekonomia eta bizi kalitatea garatzen laguntzeko nolako ahalmena duen azaldu zen hasierako aurkezpenetan eta hiru eremu funtzionaltako udalei laguntza eskatu zitzaienten, elkarrizketa eta galdeketetan sakon parte hartu eta herritarren artean galdeketak nahiz Paisaiari buruzko Katalogo eta Gidalerroekin zerikusia duten ekintzak zabaltzeko. Beraien egoitzak ere erabili ziren.

EKIMENA ERAGILEEI AURKEZTEA	BERTARATUAK
Enkarterriko udalak eta Bizkaiko Foru Aldundia, Avellaneda-Sopuertako Juntetxean (2001/09/22)	15
Arabako Errioxako udalak eta Bizkaiko Foru Aldundia, Guardiako Kuadrillan (2011/09/21)	5 (*)
Urola Kostako udalak eta Bizkaiko Foru Aldundia, Sindikatu Zaharrean, Azpeitian (2011/09/23)	11

(*) Guardiako saioa mahats-biltzarekin bat etorri zenez, 2011ko azaroaren 22an beste aurkezpen bat egin zen. 23 eragilek hartu zuten parte bertan.



Urola Kostako eragileekin Azpeitian

Aurkezpenetan gertuko giroa izan zen eta parte-hartzea handia.

**Urola Kostako
Eragileekin
Azpeitian**



**Enkarterriko
Eragileekin
Sopuerta-
Avellanedan**



Hedabideei aurkeztea (2012ko abenduaren 16a)

Helburuak

- Oro har, Eusko Jaurlaritzak paisaiaren inguruan daukan estrategiaren ikuspegia ematea
 - Zehazki, paisaiari buruzko Katalogoen eta Gidalerroen ekimena hedabideei aurkeztea eta ekimena zabaltzen parte har dezaten eskatzea.
- Lurralde Plangintza Sailak paisaiaren inguruan eginiko ekimenak hedabideei aurkeztea Donostian. Helburuak, komunitatearentzat dituen onurak eta gaur arte eginiko ekintzak azaldu ziren.
 - Iñaki Achucarro Sailburuordeak eta Alfonso Sanz Lurralde Antolaketa Zuzendariak aurkeztu zituzten ekintza horiek.
 - Egunkari, irrati eta telebistak joan ziren aurkezpenera. Dosierrak euskaraz eta gaztelaniaz banatu ziren.
 - Hedabideentzat eginiko aurkezpenaren oharra, dosierra eta grabazioa Irekian jarri zen.
 - Prentsaurrekoaren ostean, **12 inpaktu** jaso ziren hainbat hedabidetan.



Ikus "clipping" gehigarria

Aurkezpenaren clippinga (2012ko abenduaren 16a)

noticiasdegipuzkoa.com

Inicio | Política | Economía | Sociedad | Cultura y Turismo | Lituja | Opinión | Gipuzkoa

Impulsan la elaboración participativa de los Catálogos del Paisaje de Euskadi

El Gobierno Vasco elabora una Ley de Paisajes para garantizar su conservación



diariovasco.com

Portada | Gipuzkoa | Deportes | Economía | Más Actualidad | Gente y TV | Ocio | Participe | Blogs | Servicios | Hemeroteca

El Gobierno Vasco elabora una Ley de Paisajes para garantizar su conservación

Gipuzkoa enandila per sus espectaculares paisajes de mar y montaña, una riqueza natural que se debe preservar. Ahora bien, conservar nuestras "postales" no es tarea fácil. El ordenamiento jurídico dispone de herramientas de protección del medio ambiente y del territorio. Estas Normativas también se ocupan del paisaje, pero de una forma parcial y dispersa.

Uñai Atxukano, viceseñeiero de Planificación Territorial, presentó ayer en San Sebastián las iniciativas que se están llevando a cabo para cubrir esta laguna, en el marco de la elaboración de la Ley del Paisaje. Atxukano explicó que se están redactando los catálogos que analizan y evalúan los paisajes existentes en cada una de las quince áreas funcionales en las que se divide Euskadi.

Por lo que respecta a Gipuzkoa, en la actualidad se trabaja en los redactados en la zona de Ibañeta, junto a los que se ocupan de las Enoraciones y Rioja Alavesa, estará terminado de Gipuzkoa, son Basauri-Zumarraga (Gorria), Donostia-Bajo Bidasoa, Eibar (B), Mondragón-Bergara (Alto Deba) y Tolosa/Leizaola.

El viceseñeiero explicó que la elaboración de los catálogos servirá para identificar las áreas de interés, detectar las actividades, usos y procesos que inciden de forma más notoria en la configuración actual del paisaje y definir objetivos de calidad paisajística.

elcorreo.com

Portada | Local | Deportes | Economía | Más Actualidad | Gente | TV | Ocio | Participe | Blogs | Servicios | Hemeroteca

Los vecinos de la Rioja Alavesa participarán en la creación de un catálogo paisajístico

Gobierno Vasco dará la oportunidad a los vecinos de la Rioja Alavesa de participar de forma activa en la elaboración de los catálogos de los paisajes de Euskadi que servirán para diagnosticar la riqueza paisajística del territorio. El objetivo de esta iniciativa que ha puesto en marcha el parlamento vasco de Medio Ambiente y Planificación Territorial es el de crear y desarrollar los instrumentos necesarios para la protección, gestión y ordenación del paisaje incorporando los puntos de objetivos de calidad paisajística al planeamiento territorial.

modo de proyecto piloto, el Gobierno Vasco ha iniciado la elaboración de los catálogos de las zonas de funcionales de Loguarda (Rioja Alavesa), Bolmasoda-Zallo (Enoraciones) y Zorautz-peña (Urola Kosta) que se completarán a través de un proceso participativo que estará abierto hasta mayo. Con este proceso, que se desarrolla bajo el lema "Tu paisaje habla de ti; habla por ti" se incorporará la opinión y propuestas de las Instituciones y de la ciudadanía sobre su paisaje, se cómo lo perciben y sobre cómo les gustaría que fuera. Esta participación se basará en reuniones, encuestas y mesas de trabajo, y se realizará vía email, paisaje@ejgv.es, a través de web instrumenta.net, Inlra y Facebook. Toda la información está en www.turismoalavesa.com.

adn.es / Bilbao

Jueves, 22 de diciembre de 2011. Actualizado a las 11:37h | Valencia: 19º/7º

Portada | Global | Local | Deportes | Artes | ADN.tv | Opinión | Fotos

Barcelona | Bilbao | Lleida | Madrid | Málaga | Mallorca | Sevilla | Valencia | Zaragoza

adn » local » bilbao

Impulsan la elaboración participativa de los Catálogos del Paisaje de Euskadi

EFE | San Sebastián | hace 4 minutos | Comenta | Votar +0 -0 | Imprimir | Me gusta

Los vecinos de la Rioja Alavesa participarán en la creación de un catálogo paisajístico

Gobierno Vasco dará la oportunidad a los vecinos de la Rioja Alavesa de participar de forma activa en la elaboración de los catálogos de los paisajes de Euskadi que servirán para diagnosticar la riqueza paisajística del territorio. El objetivo de esta iniciativa que ha puesto en marcha el parlamento vasco de Medio Ambiente y Planificación Territorial es el de crear y desarrollar los instrumentos necesarios para la protección, gestión y ordenación del paisaje incorporando los puntos de objetivos de calidad paisajística al planeamiento territorial.

modo de proyecto piloto, el Gobierno Vasco ha iniciado la elaboración de los catálogos de las zonas de funcionales de Loguarda (Rioja Alavesa), Bolmasoda-Zallo (Enoraciones) y Zorautz-peña (Urola Kosta) que se completarán a través de un proceso participativo que estará abierto hasta mayo. Con este proceso, que se desarrolla bajo el lema "Tu paisaje habla de ti; habla por ti" se incorporará la opinión y propuestas de las Instituciones y de la ciudadanía sobre su paisaje, se cómo lo perciben y sobre cómo les gustaría que fuera. Esta participación se basará en reuniones, encuestas y mesas de trabajo, y se realizará vía email, paisaje@ejgv.es, a través de web instrumenta.net, Inlra y Facebook. Toda la información está en www.turismoalavesa.com.

La elaboración de los catálogos servirá para hacer un diagnóstico de los paisajes, identificar las áreas de interés, detectar las actividades, usos y procesos que inciden de forma más notoria en la configuración actual del paisaje y definir objetivos de calidad paisajística.



Ekintza hauek egin ziren, herritarrak animatu eta Katalogoak egiteko prozesuan parte hartzera bultzatzeko:

- **Emailing** kanpainak
- Eremu Funtzionaletako eragileei, herritarrei eta hedabideei **ekimena aurkeztea**.
- Paisaia Masterreko ikasleei eta lurralde plangintzari nahiz paisaiari buruzko foroetan ekimena aurkeztea, Donostian eta Gasteizen.
- **Galdeketen emaitzen txostenak** eta etapa bakoitzean mahaietan izandako parte-hartzeari buruzko txostenak aurkeztea.
- **Prensa artikulak**, esaterako, Berberana eta Enkarterrialden.
- **Prensa oharak** hedabideetan, Paisaiari buruzko Katalogoen eta Gidalerroen inguruan, eta parte hartzeko zabaldutako bideen inguruan.
- **Ekimenari buruzko dosierra** hedabideentzat.

WEB ORRIA

Euskadiko Paisaiari buruzko WEB ORRI zehatza, Eusko Jaurlaritzaren Web orrian

Helburuak

- Oro har, Eusko Jaurlaritzak paisaiaren inguruan duen estrategia eremu bakar batean biltzea, martxan jarritako ekimenen berri emateko.
- Herritarrek animatu eta parte-hartzea erraztea. Herritarrei gaiaren inguruko informazioa eskuragarri jartzea eta herritarren parte-hartzea jarraitzea.
- Paisaiaren Web orriaren egituraren diseinua. Katalogo eta Gidalerroez gain, Administrazioak paisaiaren inguruan eginko ekintza guztiak jasotzen ditu (Legea, Masterra, Hitzarmena, etorkizuneko Behatokia, etab.).
- Eduki eta dokumentu gehigarriak (lan zirriborroak nola behin betiko dokumentuak, txostenak eta aurkezpenak) egitea eta eguneratzea.
- Web orritik Facebooken eta Irekian Euskadiko paisaiaren inguruan dauden orrietara jo daiteke.

<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-paisaia/es/>

FACEBOOK

Euskadiko Paisiari buruzko orria sortzea, FACEBOOK sare sozialean

Helburuak

- Oro har, Eusko Jaurlaritzak paisiaren inguruan duen estrategiaren eta martxan jarritako ekimenen berri ematea. Sailaren jardura gizarteari hurbiltzea.
- Herritarrekin harremana bultzatzea eta Administrazioa gizarteari hurbiltzea.

- “Euskadiko Paisaia” orrialdea zabaltzea Facebooken.
- Katalogoen eta Gidalerroen ekimenarekin zerikusia duten post-ak idaztea, bideoak, irudiak eta albisteak gehitzea.

- 124 jarraitzaile

<http://www.facebook.com/Paisaia>



IREKIA

Paisaiari buruzko orri zehatza, IREKIA komunitatean –Gobernu Irekia-

Helburuak

- Oro har, Eusko Jaurlaritzak paisaiaren inguruan daukan estrategiaren eta martxan jarritako ekimenen berri ematea. Sailaren jarduera gizarteari hurbiltzea.
- Herritarrekin harremana bultzatzea.

- Irekian parte hartzeko taldea zabaltzea.
- Katalogoen eta Gidalerroen ekimenarekin zerikusia duten informazioak, galdeketak, irudiak eta albisteak egitea.

http://www.openideiak.com/pg/groups/89644/elaboracion_de_catalogos_y_directrices_de_paisaje_de_euskadi/

The screenshot shows the 'openideiak' website interface. At the top, there are navigation links for 'Nombre', 'Clave', 'Registrarse', and 'Clave olvidada'. A search bar is also present with the text 'Introduce un tweet y/o un' and a 'Buscar' button. Below the navigation, there are links for 'Euskera', 'Castellano', and 'Inglés'. The main content area features a group titled 'Irekia - Gobierno Abierto' with a 'Unirse al grupo' button. A sidebar on the left lists 'Encuestas del Grupo', 'Ficheros del grupo', 'Miembros del grupo', and 'Blog del grupo'. The main text area contains a message in Spanish: 'Para participar en el grupo Elaboración de Catálogos y Directrices de Paisaje de Euskadi hay que estar registrado. Regístrate o entra'. Below this, there is a section titled 'Irekia - Gobierno Abierto. Elaboración de Catálogos y Directrices de Paisaje de Euskadi' with a detailed description of the project's goals and a list of participants. A small image of a forest stream is also visible.

Paisaiaren postontzia

Komunikazioa eta Parte-hartzea Paisaia postontziaren bitartez (paisaia@ej.gv.es)

Helburuak

- **Parte hartzeko bide bat da**, dokumentu teknikoak hobetzen laguntzeko.
- Hainbat proposamen jaso dira postontziaren bitartez.
- Lurralde Antolaketa Zuzendaritzaren eta herritarren arteko komunikabide bat da (oharrak, iradokizunak, galderak, etab.)
- Hiru eremu funtzionaltako eragile eta herritarrei elkarrizketa, galdeketa, partaidetza mahai, aurkezpen eta bestelakoen berri emateko erabili da.
- Hainbat galdera jaso ditugu, parte-hartze jardueren alderdi logistikoei buruz. Non eta nola parte hartu, fitxategiak bidali, Web orrian fitxategiak jarri, saioetan parte hartuko dela jakinarazi, etab.
- Alegazioak aurkezteko epea zabaldu dela ere bide honetatik jakinarazi da.

**135 email
jaso dira**

Ekarpen baliotsuak

Paisaiaren Postontzian jasotako proposamenak (paisaia@ej.gv.es)

Ekarpen hauen kalitatea azpimarratu nahi dugu (eremu funtzionaletako hainbat taldetatik jaso ditugu asko):

1. Enkarterrialde: paisaia aldetik interesgarriak diren guneen ekarpena.
2. Otsoaren taldea: babestutako espezieen ekarpena.
3. Sopuertako Administrazio Orokorra: bandoa herritarrek paisaiaren inguruan hasitako prozesuaren berri jaso eta iritzia eman dezaten, eta Sopuertako elkarte sozio-kulturalen proposamen bateratua Enkarterriko katalogorako.
4. Bizkaiko Foru Aldundiaren Lurralde Antolamendu Zerbitzua: Balmaseda-Zallako Paisaiaren Katalogoa zehazteko prozesuan jasotako ekarpenen txostena.
5. Agorregi burdinolaren ingurua eta Pagoetako Parke Naturalaren inguruak hobetzeko proposamena.
6. UAGAre (Arabako Nekazarien Elkartea) oharrak Arabako Errioxako Katalogorako.
7. Arabako Errioxako Kuadrillaren oharrak eta proposamenak Arabako Errioxako Katalogorako.
8. Otsoaren taldea: ekimena bere sare sozialetan zabaltzea.
9. Enkarterrialde: ekimena web orrian eta sare sozialetan zabaltzea, prentsa oharrak, etab.

Denak aztertu dira eta dokumentu teknikoak osatzeko lagungarri izan dira

ELKARRIZKETA pertsonal sakonak Eragileekin

Eragileak 1. fasea eta 2. fasea

Eremu Funtzional bakoitzeko tokiko eragileak aurrez aurre elkarrizketatu ditugu.

Helburuak

- Eusko Jaurlaritzak paisaiari buruzko Katalogoak egiterakoan dauzkan helburu eta zereginen berri ematea.
- 1. etapa: hiru eremuetako paisaien ezaugarriari eta ebaluazioari buruzko informazioa jasotzea.
- 2. etapa: paisaiaren kalitate-helburuak eta hobekuntza proposamenak/neurriak zehaztea.

- Elkarrizketa **sakonak** fase bakoitzean **udaletako hautetsiekin edo Hirigintza eta Ingurumen sailtako udal langile teknikoekin**, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza sailtako **ordezkariak**, eskualdeko elkarteetakoak, hala nola Guardiako Kuadrilla, Enkarterrialde, Enkartur, etab. Hau da, elkarrizketa kualitatiboak paisaia ezagutzen duten pertsonari.
- Elkarrizketak egiteko, elkarrizketatuek adierazitako ordu eta lekuak hartu ziren kontuan.
- Elkarrizketatuei **dokumentu bat eman zitzaien elkarrizketaren aurretik irakurtzeko**. Argazkiak eta mapak erakutsi zitzaizkien in situ, paisaiaguneak adierazi eta horien inguruan ekarpenak egiteko.
- Elkarrizketetan jasotako ekarpenekin Eremu Funtzionaleko hasierako dokumentua osatu zen. Ekarpenak gehitu ostean, lan dokumentua herritarrei eskuratu zitzaien, galdeketa eta partaidetza mahaien aurretik irakurri eta informazioa jasotzeko.
- Katalogoak egiten aritzen diren erredakzio taldeek egin zituzten elkarrizketak: Arabako Errioxa (**Melissa**), Enkarterri (**Idom**) eta Urola Kostan (**LKS**).

ELKARRIZKETA FASEAK	Arabako Errioxa	ENKARTERRI	UROLA KOSTA	GUZTIR A
1 Balioak eta Ebaluazioa 2011ko Urria	15	8	24	47
2 Helburuak eta Neurriak 2012ko Otsaila	17	16	12	45
GUZTIRA	32	24	36	92

**92
elkarrizketa
pertsonal**

1. fasean

Zertarako balio izan dute elkarrizketa pertsonal sakonek

- Lurraldea aztertzerakoan jasotako informazioa osatzeko balio izan zuten elkarrizketek, eta eremu bateko ikerketa teknikoan gainerik dagoen ezagutza jaso zen: toponimoak, tradizioak, nortasun eta espiritu balioa duten lekuak, gutxitan sumatzen diren dinamikak eta arazoak.
- Elkarrizketen bidez lurraldea interpretatzerakoan talde teknikoak eginiko okerrak zuzendu ahal izan dira.
- Beste informazio iturri batzuetatik jasotzeko zailak diren tokiko hainbat gai jakin ahal izan dira.
- Erredakzio taldeak eremuan eginiko lana sailkatzen eta hautatzen lagundu dute. Horrez gain, elkarrizketa asko egiteko oso unibertso geografiko mugatua hartu da erreferentzia gisa (udala...), eta horri esker elkarrizketka zehatzagoak izan dira.
- Oso ikuspegi espezializatuak (surfa, mendizaletasuna, turismoa, etab.) jaso ahal izan dira.
- Tokian tokiko elementuak identifikatu ahal izan dira eta paisaia elementu bakoitzari buruz egiten den balorazio subjektiboa jaso.
- Udalek paisaia hobetzeko martxan jarritako ekimenen berri jaso dugu, plangintzak, proiektuak, etab.
- Ekimenaren egokitasunari eta aukerei buruzko planteamendu kritikoak jaso ditugu, kudeaketari buruzko zalantzak, aplikazioa eta eskura dauden baliabideak, etab.
- Gai honen inguruko zenbait eskaera zehatz jaso ahal izan dira: arlo honetan aritzen diren profesionalak paisaian trebatzea (udal teknikariak...), espezialisten prestakuntzatik harago.

2. fasean

Zertarako balio izan dute elkarrizketa pertsonal sakonek

- Proposaturiko neurriak bideragarriak eta egokiak diren jakiteko balio izan dute, elkarrizketatutako pertsonak adituak direlako beraien tokiko paisaian.
- Zehaztasunak, zuzenketak, etab. helburu, irizpide eta ekintzetan: aurrez dokumentu bat egin izanak aukera eman digu elkarrizketak oso operatiboak izateko eta bidalitako dokumentua zuzendu eta zehazteko balio izan digute.
- Udal teknikariek inguruaz duten ezagutzari esker batez ere, irizpide eta ekintza berriak txertatu ditugu, baita ekintza berriak ere.
- 1. etapako gaien inguruko ekarpenak eta zehaztasunak: etapa honen xedea helburuak eta ekintzak lantzea bada ere, zenbait elkarrizketatan 1. fasearekin zerikusia duten gaiak sortu dira eta jaso egin dira dokumentuan txertatzeko edo idatzia zuzentzeko: industriaguneen, zabortegeien, herrigune txikiagoen eta bestelako enenak, etab.
- Paisaia Interes Bereziko Eremu berriak txertatzeko balio izan dute.
- Zenbait gairen inguruan proposamen zehatzak jasotzea ahalbidetu dute. Horien artean azpimarratzekoa da zenbaitek ez dutela begi onez ikusten ekintzak lotesle, ez lotesle edo gomendio gisa sailkatzea.

Guardiako Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoari ERAGILEEK egindako EKARPENEN sintesia (1. etapa: Diagnostika)

- **Hauek dira paisaia BALIOTSUENAK:** Kantabriako mendilerroa, ibaiertzak, Guardiako urmaelak, Ebroko ibar-basoak, trikuharriak eta aurkikuntzak, arkitektura-ondare nagusia eta txikiena, Labraza, Dueñaseko pinudia.
- **Hauek dira HONDATUEN dauden paisaiak:** errekak eta erriberak, mediterranean orlako basoak mahatsondoen eremuan, Periurbanoa, landazabal: zaborteziak, ezpondak, etab., Guardiako urmaelak, Serna-Mesako abariztia, Ebroko erriberako puntuak.
- **ERAGIN NEGATIBOA duten elementuak:** hozkadak baso zirrikitei eta mendilerro oinei, kontrolatu gabeko zaborteziak, Logroñori lotutako industriaguneak (Oion, Serna), herri inguruko eraikuntzak, kontrolatu gabeko zaborteziak, ehizaren presioa, urbanizazioetako proiektuak-golf zelaiak, antenak, errepikagailuak, etab.
- **BEHATOKIAK:** Errioxako begiratokia, Toroko gaina, Bernedoko gaina, Guardia, Labraza, San Vicente ermita, Bastida, Toloño, Toloñoeko Kristoaren ermita.
- **Inguruaren paisaia BALIOAK:** landazabalaren eta mendilerroaren arteko kontrastea, arkitektura-ondarea, mediterranean fauna eta flora, turismoa, ardoa, arkitektura. Arkitektura- eta arkeologia-ondarea, nekazaritza gizartekoitasuna, artea eta ardoa, jaiak, ohiko erromeriak; erlijio-ondarea.
- **Natur elementu enblematikoak:** Kantabriako mendilerroa, ibaiertzak, Guardiako eta Navaridasko urmaelak, Ebroko ibar-basoak, landazabaleko hezeguneak (Leza).
- **Elementu historiko-kultural enblematikoak:** arkeologia-ondarea, trikuharriak, etxolatxoak, Erdi Aroko herrixkak, ermitak, herri historikoak, errotak.
- **Elementu sinboliko enblematikoak:** Kantabriako Mendilerroa, mediterranean basoa, ardoaren kultura.
- **Ekoizpen elementu garrantzitsuak:** turismoa eta ardoa, mahastiak oro har, mahatsondoa, Oion-Sernako industria. Beste nekazaritza produktu batzuk: zereala, almendrondoak, etab.

- **HERRI INGURUKO paisaiari buruzko iritzia:** herri guztien inguruan dago paisaia bat, baina batez ere nagusietan: “lonjak” (nekazaritza nabeak), “pabiloiak” (upategiak), urbanizazioak, etab. Hondatuta.
- **Egungo KONTSERBAZIO maila:** arkitektura-ondarea eta turismoguneak oso babestuta daude, baita sinbolikoa, jai girokoa eta erlijiosoa ere; ez horrenbeste arkeologikoa eta gutxi edo oso gutxi ekologikoa.
- **BERRESKURATZEKO elementuak eta paisaiak:** mediterranean orla basoa, erriberak, errekek, hezeguneak eta urmaelak (oinarrizko eremu handiagoa), aurkikuntza eremuak, mendi-mazela, herriak eta hirigune historikoak, erorkinak, gazteluak, ermitak.
- **MEHATXUAK, eta haien balorazioa:**
 - Hiriak: testuinguruan egokitu gabeko herri inguruaren mehatxua, akuifero eta erreka ibilguen ahalmena murriztea.
 - Azpiegiturak: erdi mailako mehatxua. Energia parkeen proiektuak: handia. Suteak mendilerroan. Arriskua suebakirik ez dagoelako.
- **INTERES BEREZIKO EREMUAK, ETA BALORAZIOA, (bikaina edo hondatua)**
 - Bikainak: Labrazako pinudia, Kantabriako mendilerroa.
 - Hondatuak: mediterranean orla-basoa, hezeguneak eta urmaelak, Ebroko erribera Lapueblan, Paganoseko zabortegeak eta hondakindegia.
- **Paisaiari buruzko katalogoa EKIMENAREN BALORAZIOA:** oro har, positiboa.
- **PAISAIAREN POTENTZIALA:** oso handia.
- **PAISAIAREN EGUNGO BALIOA:** handia-ertaina.
- **PAISAIA UNITATEEN BALORAZIOA:** mendilerroa oso altu baloratzen da, errekek, Toloño, Gatzagak eta Labraza bezalako eremu zehatzak; mendi oinetako eremuek eta hiri eremu handiek erdi mailako balorazioa dute. Oion eta Sernako industriaguneak: balorazio baxua.

▪ Jasotako kezken laburpena:

- Mahatsondoetako presioa:
 - Ezponden inbasioa, zuhaitziak, ureztatzeko urmaelak, kutsadura nekazaritza gai kimikoengatik
 - Upategiak: eraikuntza inbaditzailea, akuiferoetako ura kontsumitzea
- Baso zaintza:
 - Mendilerroa: suteak, hausturak, ehiza
 - Errekak: nekazaritza presioa, ur-emia galtzea
 - Baso eta urmaeletako zirrikituak: mahatsondoetako presioa
- Kultura babestea:
 - Aurkikuntzak eta trikuharriak: ahula
 - Arkitektura-ondarea: handiagoa
- Hirigintza presioa:
 - Herri ingurua, upategiak eraikitzea, egoitzak eraikitzea (mehatxua da, baina beharrezkoa)
 - Hiriko azpiegiturak: HUA, antenak, zabortegeak: berdin
 - Bideko azpiegiturak eta Goi Tentsioa: mehatxua, baina beharrezkoak
 - Haize-parkeak eta fotoboltaikoak: iritzi positiboa
 - Golf proiektuak eta urbanizazio berriak: oso iritzi kritikoa

Guardiako Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoari ERAGILEEK egindako EKARPENEN sintesia (2. etapa: helburuak eta neurriak)

- **Arabako Errioxako paisaiaren DINAMIKA azken 20-30 urteetan positiboa da oro har.** Oparoaldian, lurra hobetzeko inbertsioak egin ziren eta nekazaritzak ez du orain bezain intentsiboa izan behar errentagarria izateko. Horrenbestez, ezpondetako mikro erliebea eta landaredia zaindu egin ziren. Hala ere, zenbait pertsona ezkor eta kezkatuta azaldu dira paisaiaren inguruko dinamika orokorrarekin eta oso ezkor jo dituzte lur mugimenduak, mahasti-laborantza indartzea eta eraikuntza handiak agertzea.

Nekazaritza eta abeltzaintza

- **Iritzi ezberdinak laboreak lantzeko garaieretan gehieneko KOTAK jartzearen inguruan (zereala mendilerroaren gaineratik, eta mahastia zerealaren gaineratik).** Gutxienean uste dute positiboa dela zerealari bizirik eusteko (laboreen zonifikazio batean galarazita zegoen mahatsondoak A-124ren gaineratik lantzea). Gehienak, ordea, kezkatuta azaldu dira klima aldaketarengatik, mahatsondoak landatzeko eremu onena zerealaren mailara igotzen ari delako. Ondorioz, ez lituzkete laboretarako kotak ezarriko, landutako mahasti-sailak arautuko lituzkete. Mahasti-sailak kota garaigoetan ez handitzeko, mahatsondoak ureztatzeko ur hornidura handitzea proposatu dute.
- **Oro har, egoki jo dute mahatsondo, olibondo eta lehorreko frutarbolen LABORE MOSAIKOA zaintzea mahatsondoen osagarri gisa,** labore dibertsitateak paisaia eta ingurumen balioa duelako, eta garrantzitsua delako nekazaritza ekoizpeneko arriskuak sakabantzeko, eta kultura, ohitura eta tradiziozko balioei eusteko. Hala ere, oso zaila dela uste dute, ekonomikoki labore horiek ez direlako lehiakorak. Labore dibertsitateari eusteko neurrien artean, nekazariari laguntzak eta diru-laguntzak ematea, labore dibertsitatea sustatzeko kanpainak egitea eta nekazariak kontzientziatzea proposatu dute. Hainbat ekimen daude jada, mahastietako melokotoia, olibondoa eta trufa bultzatzeko (arte mikro-kizkurtua).

- **Iritzi ezberdinak paisaia mugatzen duten elementuak zaintzeko (mikro-erliebea, ezpondak, harresitxoak eta matriz naturalak) LURSAILEN KONTZENTRAZIOA mugatzearen inguruan.** Oro har, ados daude nekazariari ahalik eta gehien erraztu behar zaiola lana, baina matriz naturala arriskuan jarri gabe. Herritarrek uste dute ez direla lursailak kontzentratzeko prozesu gehiago sortuko, une honetan ez liratekeelako “errentagarriak” izango. Beste zenbaitetan, kontzentrazioak upategi handiei baino ez lieke egingo mesede beraien ustez, eta kalte egingo lieke egun paisaiaren oinarrian dagoen egiturari. Nekazaritzarako kaltegarria den eremuetan nekazariei matriz naturala kentzeko aukera ematea proposatu da neurri gisa, betiere kendutako eremuaren neurriko lur-zati bat utzita eragozpenik sortzen ez duen lekuren batean eta korridoreak sortuz biodibertsitateari on egingo dion lekuren batean (era koordinatuan egiten bada).
- **Gehienek uste dute baserrietako LUR MUGIMENDUAK modu negatiboan ari direla eragiten paisaian** mikro-erliebea aldatzen dutelako, zabor-ezpondak sortzen dituztelako eta lurrraren perfila aldatzen dutelako, paisaiaren oinarri. Mugimendu horiek gehiago kontrolatu behar dira eta aurrez ikerketa bat egin beharko litzateke. Baina ados daude lurra lantzen dutenei laguntzen saiatu behar dela. Nekazariak lur mugimenduen alde daude, nekazaritza ustiapena errazten eta laguntzen dutelako.

Neurri gisa, administrazioak gehiago kontrolatzea proposatu da, erliebe txikiak hondatu ez daitezen; dakien norbaitek esatea mugimendua egin daitekeen edo ez, nekazariei laguntzen saiatuz, eta horrekin batera erliebean sortutako hutsuneetan landaredia berrezartzea eta zabortegeiak integratzea. Beste alde batetik, esan dute zenbait udaletan basozainek onartu behar dituztela lur mugimendu guztiak; beste batzuetan, berriz, aski da udaletxean lizentzia eskatzea. Zerealen eta mahatsondoen SIGPAC tresnak ere kontuan hartu behar direla aipatu da, lur mugimenduak kontrolatzeko, bertan jasotakoaren arabera, larre, zuhaixka edo zuhaitzetarako eremuetan ezin delako mendia moztu.



- **Gehienen ustez positiboa eta egingarria da FRUTARBOLAK ETA MAHATSONDOAK batera egotea.** Horren errentagarria izan ez arren, labore hau paisaiarentzat ona izan daitekeela uste dute eta tradiziozko ohiturei eusten lagun dezakeela. Antzina familian egiten zen bezala marmeladak eta bestelako kontserbak egin litezke. Tokiko Agenda 21ean proiektu bat proposatu da mahastietako melokotoia berriz ere sartzeko. Neurri gisa, diru-laguntzez gain, kontzientziazio kanpaina bat egitea proposatu da frutarbolak zaintzen erakusteko, lurra lantzen dutenentzat kaltegarria izan gabe, eta ustiapenetik onurak ateraz. Norbaitek aipatu du ez dela bideragarria, are gehiago egun, ez dagoelako urik.
- **TRADIZIOZKO NEKAZARITZA JARDUERAK zaindu behar direla uste dute, baratze-alarretako laborantzak esaterako (AEIP),** errentagarriak baldin badira edo diruz lagunduta baldin badaude, galtzen ari diren gizarte eta kultura alderdiak berekin dituztenak: kontserbak eta bestelakoak egiteko familiarekin elkartzeko egunak, mahats-biltzea... Mekanizazioak gizarte harremanak gutxitu dituela aipatu da. Paisaia on eta abegitsuak jende on eta solidarioa egiten du. Neurri gisa, jarduera horiek gizartean behar beste baloratzea proposatu da, nekazaritza ustiaketetan sortzen dituzten kostu handien aurrean. Tradiziozko zenbait metodo, lorontzietako laborantza, esaterako, errentagarriagoak dira parretakoa baino. Beste batzuek esan dute jarduera horiek ez direla emankorrak, eta desagertu egingo direla.
- **ABELTZAINZA ESTENTSIBOAREN GAINBEHERA geldiaraztearen inguruan,** oro har uste dute abeltzaintza estentsiboa oso positiboa dela lur-sailetako sasiak garbitzen dituelako eta nekazaritza kultura aberasten duelako. Baina abeltzaintza ustiaketei erraztasunak eman beharko litzaizkioke, nekazaritzaren aldean gero eta errentagarritasun gutxiago duelako. Posible ikusten dute Kripan, Bilar, Gorrebusto eta Ekora herrietan, eta zereala lantzen den eremuetan berriro sartzea. Abeltzaintza laguntzeko ekimenak badaude, Arabako Foru Aldundiarekin eta IKTrekin abeltzaintzarako mendi-eremuak mugatzeko martxan jarritako proiektua esaterako. Tokiko Agenda 21ek ere bere helburuen artean dauka jarduera hori bultzatzea.

Natura eta ingurumena

- **Eremu osoko laborantza-eremuetan gelditzen diren ZIRRIKITUEN ARTEKO ZUHAITZ ETA ZUHAIKKA EREMUAK kontserbatzeari buruz, mahatsondoak batez ere, (AEIP)** horiek zaintzea proposatu da, ukiezin bihurtu gabe, zenbait aukera emateko: batzuk besteekin ordezkatzeko, esaterako, nekazaritza ustiaketa erraztu eta besterik gabe kendu ez daitezten. Eraikuntza jardueren EIA-n eremu hauek kontuan hartzea. Artea eta erkametzak babestea eta espezie horietako landare gehiago landatzea. Ezpondak eta “sastrakak” modu kontrolatuan erretzeko baimena ematea, suhiltzaileak bertan direla, modu klandestinoan egin ez dadin, halakoetan sortzen direlako suteak. Eremu horiek erabilera komuneko espazio gisa babestea, jabeari jabetza kendu eta diruz lagunduz.
- **Oro har, garrantzitsua iruditzen zaie ERREKAK erasoetatik BABESTEAK, esaterako, ibarretako laborantzetatik, (AEIP),** laborantzak indartu eta zabaltzetik, ingurua garbitzeko erriberako landaredia erretzetik, pestizidetatik eta ubideen eta horiek hornitzen dituzten iturburuen gehiegizko ustiapenetik. Daukaten babesak betetzen dela ziurtatzeko jarraipen handiagoa egitea proposatu dute, ezpondak garbituz zaintzea, iturri naturalak zaintzea, erriberako landaredia eta ekosistema berreskuratzea, eta azkenik, lur-sailak lantzen dituztenak lurra ingurumenean egoki zaintzeak daukan garrantziaz kontzientziaz, horrek oro har lur eremu osoan daukan eragin positiboa erakutsiz (laborantzak barne), eta lurra zaintzearekin bat datozen laborantza teknikak erakutsiz.
Egun errekek jabetza pribatukoak direla aipatu dute, eta nekazariak bertan egiten dituzten jarduerak ez direla mugatu behar, ezta horien kudeaketa Konfederazioaren esku uztera behartu ere (desbideratu, etab.). Egun tramiteekin eta malgutasun faltarekin zigortzen baitira. Erriberako landaredia, landu arren sastraka gisa sortzen denez, laborantzarako negatiboa dela uste dute.
- **Gehienek uste dute GUARDIAKO URMAELEN ETA PUTZUEN eremua (AEIP) nahikoa babestuta eta finkatuta dagoela,** eta ez dagoela beharrik babesteko. Eremu hori baloratu, zaindu eta errentagarriago egiteko beharrezko azpiegituraren bitartez, aisialdirako behar bezala erabiltzea onuragarria izango litzatekeela aipatu da. Urmaelen inguruko kontrola handiegia dela adierazi dute, lurra lantzen duten pertsonak zigortu egiten dira eta.

- Ustiaketa-basoetatik sasitzak kentzea.
- Natur-erreserba izendatzea.
- Kobazuloak zaintzea.
- Biodibertsitate handiko inguruak zaintzea.

Industria ingurua

- Zaborteziak eta hondakindegia kontrolatzea.
- Las Lagunaseko zaborteziak kentzea.
- Parke eolikoak galaraztea.
- Paper-fabrika eta harrobiak ixtea.
- Eraikuntzak kontrolatzea.
- Jarduerarik ez duten industria pabiloiak kentzea.
- Petronor hustea.
- Dorre eta dorretxo elektrikoak kentzea.
- Tokiko baliabideak eta eguzki energia, biomasa, geotermikoa eta eolikoa aprobetxatzea.

Herritarrak sentsibilizatzea

- Enkarterriko bizilagunak zaindu behar duten ondareaz kontzientziatzea.
- Sentsibilizatu eta kontzientziatzea ingurua zain dezaten.
- Haurrak saritu eta hezteak, ingurumena baloratzen ikas dezaten.

Neurri legalak

- Ingurua hondatzen dutenak konpontzera behartzea.
- Kontrol zehatza plastikoak nahi eta nahi ez biltzeko; bestela zigorra jartzea.
- Urbanizazio arauak ingurura egokitzea.
- Legezko babes neurriak.
- Administrazioak legez behartzea diruz laguntzera.

Estetika

- Zenbait herriren sarreretan dauden etxeen aurrealdeak berritu, harraskatu edo margotzea.
- Antenak, sare elektrikoak eta bestelakoak jartzeko ikerketa.
- Hirigunetik kanpo eraikitzen diren etxeak mugatzea.
- Linea elektrikoak, trenbide-pasaguneak eta trenbideak lurperatzea.



Herritarren parte-hartzea Urola Kostako Paisaiaren Katalogoa egiterakoan

1. Etapa Paisaia identifikatu, ezaugarritu eta ebaluatu

Herritarrei eginiko galdeketak

- ❑ **Paisaiari buruz Urola Kostako herritarrei** emailez, postaz eta kalean **eginiko galdeketetan** lortutako emaitzak jaso dira dokumentu honetan.
- ❑ Urola Kostako herritarrek beren paisaiari buruz duten iritzia jaso da txostenean (paisaia baliotsuenak, hondatuenak eta paisaia hobetzeko neurriak, besteak beste).
- ❑ **Eremu Funtzionaleko udal** hauei bidali zaizkie galdeketak: Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa, Zumaia (eta horietan hainbat sailatar: Kultura, Turismoa, Berdintasuna, etab.). Ekonomia eta landa garapeneko erakundeetara, kirol, kultura, turismo eta ekonomia garapeneko elkarteetara ere bidali da, haiek ere beraien kontaktuei bidaltzeko.
- ❑ Jasotako galdeketak: **126 lagun**.
- ❑ Hauxe da banaketa, **adinaren arabera**:

Sexua

% 68 Emakumeak
 % 32 Gizonak

Adina


% 7 25 urte baino gutxiago
% 42 25-44 urte
 % 30 45-64 urte
 % 21 65 urte edo gehiago

Gehien parte hartu duten pertsonak **Zarautzen** (% 31), **Azpeitian** (% 30) eta **Orion** (% 21) bizi dira. Galdeketan parte hartu duten pertsona gehienak (% 86) Urola Kostan bizi dira.

Galdeketei erantzun dieten pertsonen lotura handia dute inguruko paisaiarekin

PAISAIAREKIN DUTEN HARREMANA

Urola Kostarekin harremana (beharrezko diren auekrak markatu)



Emakumeak eta gizonak ez datoz bat paisaia baloratzerakoan

Urola Kostako **paisaiaren balorazioa** jaso da, zein aukera dituen (**balorazio potentziala**) eta paisaiaren balorazioa **sexuaren arabera**.

PAISAIAREN EGUNGO BATEZ BESTEKO BALORAZIOA **7,5**

PAISAIK IZAN DEZAKEEN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA **8,9**

BALORAZIOA SEXUAREN ARABERA

	Egungo paisaia	Paisaia potentziala
Emakumeak	7,3	8,8
Gizonak	7,7	9,3

Gizonezkoek emakumeek baino modu positiboagoan baloratzen dituzte bai Urola Kostako egungo paisaia eta bai potentziala ere; emakumeak kritikoagoak dira.

Biek uste dute **paisaia potentziala egungoa baino hobe dela**, batez beste 1,55 puntuko aldea dute.

Urola Kostan bizi direnek modu positiboagoan baloratzen dute paisaia

BALORAZIOA PAISAIAREKIN DUTEN HARREMANAREN ARABERA

EGUNGO PAISAIAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA

Bertan bizi direnak	7,4
Urola Kostan jaio direnak	6,7
Bertan lanean daudenak	6,5
Paisaiarekin zerikusia duten kirol edo aisialdi jarduerak egiten dituztenak	5,6

PAISAIA POTENTZIALAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA

Bertan bizi direnak	9
Urola Kostan jaio direnak	8,6
Bertan lanean daudenak	8,1
Paisaiarekin zerikusia duten kirol edo aisialdi jarduerak egiten dituztenak	8,0

Gainera, paisaia hauek dituzte gustukoenak

PAISAIA GUSTUKOENAK

Kostaldea

- **Getaria**, kultur eta ekologia balio handia duelako, San Anton mendia.
Getaria eta Zumaia arteko kostaldea, ikuspegiarengatik.
- **Orio** (Kukuarri), Oriako estuarioa natur balio handia duelako. Hondartza, itsasadarra eta ukitu gabe dagoen hirigune historikoa.
- **Zumaia**: Itzurun eta San Telmo hondartzak, lasaigarria delako eta bertatik ermita ikus daitekeelako.
- **Zarautz**: Inurritza (dunak, itsaslabarrak, urtegiak), Mollarri, Pagoeta, hondartza, lasaiak direlako, eta nekazaritza ingurua ongi zainduta dagoelako eta kanpina, itsasoko eta mendiko ikuspegiez goza daitekeelako.
- **Deba**: hondartzak eta flyscha.

Barnealdea

- **Izarraitz mendikate ingurua**. Zabala eta handia delako, eraikuntzarik gabekoa, lasaia, eta natura egoki zainduta dagoelako. Baita Izarraitz Urrestillatik ikusita ere (ikusgarria eta dotorea).
- **Zorrozpe eta Erlo ingurua**.

Urola Kostako paisaiaren indargune hauek proposatu dituzte herritarrek

HERRITARREK PROPOSATURIKO BESTE PAISAIA INDARGUNE BATZUK

Oro har...

- Nekazaritza ingurua.
- Landaredia.
- Erliebea eta koloreak.
- Artaldeak bazkatzen.
- Zuhaiztiak.
- Baserrien mimetizazioa.
- Babestu gabeko eremu guztiak, oraindik urbanizatu eta ustiatu gabe daudenak.
- Hirigune historikoak.
- Mahastiak.


Kostaldea

- Algorri hondartza.
- Mollarri, Talaimendi (Zarautz), Irita, Inurritza (Zarautz).
- Zarautz molla.
- Urola bailara.
- Orioko itsasadarra.

Barnealdea


- Loiola eta Azpeitiko mendien ikuspegia, naturarekin bat egiteko sentsazioa sortzen duelako.
- Santa Barbara mendia.
- Iraetako meandroa (Zestoa).
- Aizarna: Ertxiña mendia.
- Altzolarats.
- Ekainberri.

Urola Kostako herritarrek uste dute eremu babestuak direla baliotsuenak



Eremu babestuak dira paisaiaren indargune nagusiak, barnealdean zein kostaldean.

Hondakindegia, zabortegiak eta harrobiak dira paisaia gehien hondatzen duten elementuak



Oro har, **hondakindegia, zabortegiak eta harrobi abandonatuak** dira Urola Kostako paisaia gehien **hondatzen** duten elementuak. Eta horien ondoren, **herriguneetarako sarrerak**.

Paisaia gehien hondatzen duten elementuak hirigunean daude herritarren ustez

HERRITARREN USTEZ PAISAIA HONDATZEN DUTEN BESTE ELEMENTU BATZUK

Landa ingurua

- Mendi inguruetan erdi ezkutuan dauden eraikinak.
- Baserri hutsak.
- Lur mugimendu handiak, nekazaritzarako izan arren (txakolina, ukuiluak eraikitzea...).
- Zenbait baserriko zikinkeria: pilatutako txatarra, etab. iristeko leku zailetan.
- Garate-Santa Barbara inguruan eta Iñurritza mendigunean mahastiak hartzen ari diren ingurua.

Natura ingurua

- Inurritzako (Zarautz) biotopoaren baldintzak: erosteko orgak, plastikozko kaxak uretan, etab.
- Mendiak oro har.
- Saltoki handiak paisaia naturalen erdian.
- Itxasmendi hezegunea Zarautzen.
- Itsasadarra gutxi zainduta.
- Usurbilgo eta Aginagako erreka.
- Zuhaitzak plastikozko poltsekin estalita.
- Hezeguneen ingurua, zaindu gabe.
- Erauzketak eta eraikuntzak egin diren hondartzak.
- Kosta inguruan erdi ezkutuan egin diren eraikuntzak.

Industria ingurua

- Erreketara botatakoak.
- Obretako hondakinak.
- Kutsadura ez organikoa.
- Lapatx eta Urtetako zabortegeien inguruak
- Herritik gertu dauden industriaguneak (Azpeitiko industriagunea eta altzairu-fabrika, Zestoako industriagunea, Zarautzeko Eroski ingurua, Iraetako Burdinola-fabrika (Aizarnazabal), Bedua inguruko industrialdeak)
- Zestoako eta Errezilgo harrobiak (makinak)
- Karrozeriak (auto zaharrak, gurpilak)
- Hiri ingurua kutsatzen duten hondakinak sortzen dituzten galdategiak. Askotan, bildu ere ez dira egiten.

Hiri ingurua

- Errepideak egoera txarrean eta lurreko seinaleak hondatuta.
- Hormetako pintadak.
- Porlan gehiegi urbanizazioetan.
- Argi gehiegi edo ez eraginkorra (genero ikuspeirik ez).
- Eremua gaizki aprobetxatuta (eraikinak pilatuta, lurpeko aparkaleku gutxi...).
- Etxe berrien kontrastea baserri tradizionalekin.
- Urbaniza daitezkeen edo paisaia balioa duten eremuak abandonatzea.
- Bidegorri falta eta hirigunean autoak erabiltzea.
- Etxebizitza garaiak.
- Kontrolik gabeko kartelak eta errotuluak.
- Autobidea eta paisaia hondatzen duten beste zerbitzu batzuk, beharrezkoak izan arren.
- Herriguneetan dagoen industria.

Hirigune inguruetan paisaia hondatuta

- Herrien barnealdea eta ingurua oro har.
- Usurbil ingurua.
- Arroabea, San Miguel inguruak Oikia menditik.
- Irita eta Abendaño inguruak, Zarautzen.
- Zelai Ondo auzoko txatarategia, Zarautzen.
- Azpeitiko hirigune historikoa.
- Abeta eta Azu baserrietarako auzo-bidea, Meagako errepidetik.
- Hiriguneetarako sarbideak, Azpeitikoa, esaterako.
- Sarbideak (errepideak, biribilguneak...).
- Urbanizatu gabeko lursailak, tarteka eta behin-behinekoz erabiltzen direnak (aparkalekua, hartxintzar-eremuak...).

Urola Kostako herritarrek paisaia hobetzeko neurriak proposatu dituzte

Landa ingurua

- Zuhaitz gehiago landatzea.
- Lantzeko lurrak kudeatzeko plan orokorra: nekazaritza iraunkorrari lehentasuna emanez monolaborantzak sortzen duen kaltearen aurrean (batez ere espezie exotikoak landatzea debekatuz).
- Pinua ez diren beste labore batzuk bultzatzea eta zuhaitz-espezie autoktonoak landatzea. Biodibertsitatea zaintzea.
- Baserri inguruetan zer egiten den kontrolatzea (zaindu gabeko eraikuntzak, traktore zaharrak pilatuta...).
- Nekazaritza eremuak behar bezala zaintzeko laguntza gehiago.
- Basoen ordeaz mahastiak ez jartzea.
- Ondo zaindutako lurrak babestea; horiekin zer egin daitekeen eta zer ez zehaztea.
- Etxolak eta ortuak kudeatzeko plan bat.
- Etxe tradizionalen inguruan etxe berririk eraikitzeko baimenik ez ematea.

Natura ingurua

- Barneko paisaiari balioa ematea, bideak seinalatzea.
- Natura eremuak indartzea: mendia, errekek, hondartzak...
- Zingirak berreskuratzea.
- Zigor-neurriak hondartzak zikintzeagatik.
- Basoak garbitzea.
- Plangintza on bat egitea, eremu berdeetan paisaia garbi edukitzeko.
- Mendiak garbitzea; sasiak sortzeak arazo larriak eragin ditzake.
- Eremu babestuetan hirigintza edo espekulazio-lanik egiteko baimenik ez ematea.
- Zenbait inguru legez babestea.
- Babestutako eremuak zabaltzea.
- Hiriko jarduerak ingurumenarekin bat egitea.
- Ubideak eta erreka ertzak garbitzea.
- Mendietako bide berriak mugatzea.

Hiri ingurua

- Herrietako sarrerek hobetzea.
- Herrietan oinezkoentzako kaleak egitea.
- Etxebizitza garaiagoak egitea.
- Hiriak gehiago ez haztea eta urbanizatu ezin diren lurak ez okupatzea.
- Udal zerbitzuek kontrol hobea egitea.
- Administrazioek ingurumen legeak betetzea.
- Abandonaturiko ostatuak berreskuratzeko planak.
- Turistei baino gehiago, herritarrei arreta ematea.
- Kirolerako eta aire libreko jardueretarako eraikin gehiago egitea.
- Auto kopurua mugatzea.
- Paisaiaren garrantziaz sentsibilizatzea.
- Garraiobide publikoa handitzea.
- Zarautz eta Zumaia arteko errepidea oinezkoentzat bihurtzea eta autobidea erabiltzea.
- Irizpide estetikoak bateratzea.
- Errepideetako lurra margotzea edo berriz margotzea.
- Hirigune historikoak ez aldatzea.
- Antena gutxiago.
- Autobidea eta Zarautz erdigunetik igarotzen den trenbidea kentzea.

Industria ingurua

- Industrialderik ez eraikitzea.
- Industria herrigunetik urruntzea.
- Industriaguneak ondo kudeatzea.
- Aizarnazabaleko eta Beduako industrialdeak lekuz aldatzea.
- Obra hondakinak jasotzeko dispositiboak.
- Isuriak, kutsadura eta bestelakoak zigortzeko neurriak.
- Zarautzeko zabortegia ixtea.

Ekimena ondo hartu da baina ez daude ziur paisaia hobetzeko balioko duen

Ekimenaz

Ezer positiborik ez	Ez oso positiboa	Nahiko positiboa	Oso positiboa
% 1	% 12	% 56	% 31

Batez bestekoa*
3,2

Urola Kostako paisaiari buruzko Katalogoak eta Gidalerroak egiteko ekimenaren **balorazio positiboa** egin dute herritarrek. Gainera, paisaian **nahiko eragin handia** izango duela uste dute.

Paisaian izango duen eraginaz

Oso gutxi edo ezer ez	Gutxi	Nahikoa	Handia
% 16	% 37	% 38	% 10

Batez bestekoa*
2,4

Sexuaren arabera

	Ekimenaren balorazioa	Paisaian izango duen eraginaren balorazioa
Gizonak	3,1	2,2
Emakumeak	3,2	2,5

Emakumeek gizonak baino zertxobait hobeto baloratzen dituzte ekimena eta paisaian izango duen eragina, baina **balorazioen arteko aldea ez da esanguratsua.**

Ekimen honekin eszeptikoak direnek hainbat argudio eman dituzte

Arrazoi hauengatik, ez dute uste ekimenak paisaian eragin handirik izango duenik: interes ekonomikoak, borondate politikorik eza eta ekimena ezartzeko konfiantza falta

Askotariko interes ekonomikoak

- Gastua dakarrelako eta Eusko Jaurlaritzarentzat plan hauek ez direlako ezinbestekoak. Paisaiari eta naturari ez zaie arretarik ematen”.
- Interes ekonomiko asko daudelako eta horiek zaildu egiten dutelako paisaia hobetzea.
- Ez dute eraikitzea galaraziko, turismoa erakar lezakeelako. Bisitak areagotzeak paisaiari kalte egin liezaioke, baina dauzkagun alde onak jakinarazi egin behar dira.
- Dirua garrantzitsuagoa da paisaia baino. AHTrekin egin duten sarraskia ikusi besterik ez dago.
- Ez dago dirua honetan gastatzeko beharrik.

Ildo politikoaren jarraitutasun falta eta konfiantza falta ekimena ezartzeko moduaren inguruan

- Hau martxan jartzen denerako, beste gobernu bat egongo da indarrean eta beste gauza batzuk egin nahiko ditu.
- Ez dut uste Eusko Jaurlaritzak demokrazian parte hartzen utziko duenik.
- Diagnosiak eta planak beharrezkoak dira, baina egiazki ez dira eraginkorrak eta ez dituzte ekintza eta neurri zehatzak ezartzen (ez dute bermatzen egingo direnik). Orain arteko joera politikoak eraikitzeari eta inbertitzeari eman dio lehentasuna, ez dagoena hobetzeari (ikus errepideak, trenbide sarea, etab.).
- Planak ez dira betetzen; eta okerreana da legea bera sortzen dutenek ez dutela betetzen. Penagarria da.
- Krisian gauza gutxi egin daiteke.

Ondorioak

- Paisaia modu positiboagoan baloratzen da.
- Oro har, herritarrak kezkatuta daude herrien kanpoaldearekin.
- Iritzi ezberdina paisiarekin duten harremanaren arabera eta sexuaren arabera.
- Urola Kostan bizi direnek baloratzen dute gehien egungo paisaia, baita paisiaren kudeaketa egokiarekin lortuko litzatekeen paisaia ere.
- Ekimenean konfiantzarik ez dutenek interes ekonomikoak eta borondate politiko falta argudiatu dituzte.



Herritarren parte-hartzea Arabako Errioxako Paisaiari buruzko Katalogoa egiterakoan

2. etapa. Paisaiaren kalitate-helburuak eta hobetzeko neurriak

Herritarrei egindako galdeketen emaitzak

- ❑ **Paisaiari buruz Arabako Errioxako biztanleei egindako galdeketetan** lortutako emaitzak jaso dira agiri honetan. Galdeketak baliabide elektronikoak erabiliz eta kalean egin dira.
- ❑ Katalogoa idatzi duen taldeak paisaiaren inguruan proposatutako kalitate-helburuei buruz Arabako Errioxako biztanleek duten balorazioa jaso da txostenean. Helburuak Arabako Errioxako eragileekin kontrastatu dira aldez aurretik.
- ❑ **Eremu Funtzionaleko udal hauetara bidali** dira Galdeketak: Mañueta, Kripan, Eltziego, Bilar, Bastida, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda, Navaridas, Oion, Samaniego, Villabuena eta Ekora (eta horien barruan hainbat sailetara, besteak beste, Kultura, Turismo eta Berdintasun sailetara). Halaber, ekonomia eta landa garapenerako erakundeetara, kirol, kultura eta turismo elkarrekin, ekonomia garapenerako elkarrekin eta bestelakoetara bidali dira, haiek euren kontaktuei bidaltzeko. Horrez gain, 2012ko apirilaren 3an inkesta bat egin zen in situ.
- ❑ Jasotako Galdeketak: **69**.

Sexua

% 42	Emakumeak
% 58	Gizonak


Adina

% 3	25 urte baino gutxiago
% 38	25-44 urte
% 48	45-64 urte
% 12	65 urte edo gehiago

Galdeketei erantzun dieten pertsonen harreman estua dute euren paisaiarekin


PAISAIAREKIKO LOTURA

Arabako Errioxarekiko lotura (behar beste aukera markatu)



Guardia, Oion eta Bastidako biztanleak dira 2. etapan gehien parte hartu dutenak


Indica localidad de residencia



Zaborteziak kontrolatzea, akuiferoak mantentzea eta mahatsondoaren nahiz olibondoaren kultura sustatzea dira adierazitako helburu nagusiak

Garrantzi gehien eman zaion helburua bat dator lehenengo etapako inkestetan gehien adierazitako degradazio faktorearekin: zaborteziak eta h

Baloratu paisaiaren kalitate-helburu hauen lehentasuna eta premia Arabako Errioxako paisaia hobetzeko



Argibide gehiago eta elkarrizketak, praktika produktiboak eta paisaia zaintzea bateragarriak izan daitezzen

Nola konpon liteke nekazaritza-interesen eta paisaia zaintzeari dagokionez dakartzan praktiken (ezpondak erretzea, zirrikitu arteko arteko landaredia eta ibai ertzetakoa suntsitzea, erliebea aldatzea, etab.) arteko gatazka?

1. Elkarrizketa

- “Nekazariekin hitz egitea”.
- “Beharrezkoa da Nekazaritza Sailak Fauna, Mendi eta Dibertsitate sailekin hitz egitea neurri zehatzak hartzeko”.
- “Denok hitz egin beharko genuke gehiago, eta informazio gehiago izan beharko genuke”.
- “Nekazari, ekologista eta politikariek bildu egin behar dute”.

2. Zigorak

- “Nahiz eta ez izan irtenbide onena, badirudi nekazaritza munduan arrakasta duen gauza bakarra zigor ekonomikoak direla”.
- “Nekazariak kontzientziaztea paisaia erakargarriak dituen abantailen inguruan. Eta guztiontzako (bai bertan bizi direnak bai bisitariak) paisaia atsegin mantentzen dutenak ekonomikoki konpentsatzea. Garrantzitsua da paisaia mantentzea, baina garrantzi bera du paisaia landuko duen nekazaria mantentzea”.
- “Isunak jarri eta kontrolatzea”.

3. Gaiaren inguruko trebakuntza eta sentsibilizazioa

- “Lehenengo eta behin, garrantzitsuena da nekazaria trebatzea eta landaretza mantentzeak eta inausketak ez egiteak duen garrantziaren inguruan kontzientziaztea”.
- “Nekazariari argibide zehatzak emanez, halakoetan paisaiari kalterik eragin gabe nola jardun jakin dezan”.
- “Lehenengo sektorean lan egiten duen biztanleria aktiboaren artean ekintza eraginkorrak bilatuz”.
- “Nekazariak kontzientziaztea paisaia erakargarriak dituen abantailen inguruan. Eta guztiontzako (bai bertan bizi direnak bai bisitariak) paisaia atsegin mantentzen dutenak ekonomikoki konpentsatzea. Garrantzitsua da paisaia mantentzea, baina garrantzi bera du paisaia landuko duen nekazaria mantentzea”.
- “Arabako Errioxa trebakuntzarekin. Desentsibilizatzen ari da”.
- “Nekazariari ikastaroak emanez”.
- “Mahastietan ankerkeriak egiten dituztenak trebatzea”.

Beste erantzun batzuk

4. “Praktika hauek horretan aritzen diren enpresen bidez kanporatuz eta jokabide-eredu bateratu bati jarraituz. Horrela, posible izango da jarduteko modua edo ingurumenari kalte egiten ez dioten eta paisaia aldatzen ez duten produktuen erabilera bateratzea”.
5. “Praktika batzuk albo batera utziz baina kontrolatuz eta laboreak eta paisaia bateragarriak izan daitezen gutxieneko arau batzuk mantenduz”.
6. “Ezponda erretzea gehiago zaindu beharko litzateke, nekazariak berak ez baitu horrekin ezer lortzen, ohitura da, ohitura txarra. Erliebea aldatzea kontu korapilatsuagoa da, hegalean dauden lursailak eurenak direlako eta horiek lantzeko zailtasunak dituztelako. Beharbada hobe litzateke baratze-alorrek gomendatzea dena hondarrez bete eta estetika apurtzen duen ezponda handi-handia egitea baino. Batzuek uste dute ibaiertzak eurenak direla, baina udalek ere ez dakite zer egin behar duten”.
7. “Lehenengo sektorean lan egiten duen biztanleria aktiboaren artean ekintza eraginkorrak bilatuz”.

Ez da arazo moduan hartzen

- “Ezpondak erretzea galarazten bada, agian nekazariak pestizidak erabiliko ditu, eta horiek are kaltegarriagoak dira”.
- “Ez zait iruditzen Arabako Errioxan hori arazo bat denik”.
- “Nekazaritzan erabiltzen diren praktikak paisaiaren zati dira”.
- “Nekazariak ahal dutena egiten dute”.
- “Ez dakit non dagoen arazoa, beti egin izan da horrela”.
- “Lursail bat badaukazu, ahalik eta gehien landu behar duzu”.
- “Ez nekien ezpondak erretzea txarra zenik”.

Gehienek uste dute posible dela lehorreko hainbat laborantza egotea.

Posible al da lehorreko hainbat laborantza (zerealak eta olibondoak, esaterako) eta mahastiak aldi berean egotea? Nola lortuko litzateke?

Bai, posible da laborantza horiek guztiak aldi berean egotea

- “Betidanik egon dira. Gure nagusiei galdetu behar zaie”.
- “Beti izan da horrela. Azken urteotan mahastiak izandako gorakada izan arte, gogoan dut Guardian, mahastien inguruan fruta-arbola asko zeudela (gereziak, gingak, mertxikak, okaranak etab.). Kontua da interes ekonomikoa nagusitu zela”.
- “Historian zehar, laborantza horiek guztiak aldi berean egon dira. Zergatik ez orain? Eta, horretarako modu bat egon behar al da?”.
- “Posible izango litzateke, lehorreko hiru laborantza dira eta”.
- “Noski baietz, posible da horiek guztiak aldi berean egotea. Hori sortu eta mantentzeko gai direnak sustatu eta babestu behar dira, hau da, nekazariak”.

- “Hirugarren sektorean nago. Uste dut lehenengo sektorekoentzako galdera dela. Hala ere, suposatzen dut posible dela”.
- “Laborantza horiek mahastiak baino gehiago sustatuz eta lagunduz”.
- “Bai, erabat. Nekazari bakoitzak ikusiko du nola egin, eurak dira-eta laborantza ondoen ezagutzen dutenak”.
- “Bai, fruta-arbola gehiago landatuz eta lurak banatuz”.
- “Bai, lurak laborantza mota guztietarako utziz.”
- “Bai; egia esan, beti egin izan da horrela”.
- “Bai, laborantzak eta mahastiak bereiziz”.
- “Bai, dagoena landatuz eta gehiago haziz”.

Laborantzen errentagarritasun ekonomikoak baldintzatzen du

- “Uste dut posible izango litzatekeela, baldin eta nekazariarentzat ekonomikoki ona izango balitz. Laborantza ekonomiarekin lotuta dago. Ekonomikoki errentagarria bada, egingo da. Lurra oparoa bada, landatu daiteke. Eltziegon, esaterako (hango lur gehienak kalitate gutxi du), mahastiak mendeetan egon dira. Lurra zenbat eta oparoagoa, orduan eta zereal gehiago landatzen zen, eta mahastiak gune elkorretarako izaten ziren”.
- “Errentagarria dela ikusten ez bada, zaila da. Gaur egun denok daukagu nahi dugun fruta eta nahi dugunean, eta errentagarria ez bada, zaila da beste produktu batzuk jartzea. Olibondoak jarri dituenak, berreskuratuko zuela uste zuelako eta aldatzeagatik jarri ditu, edo diru-laguntzak lortzearren”.
- Zaila da. Balio ekonomikoek baldintzatzen dute, eta balio horiek aldatu egiten dira denborarekin.

Eraikinak arautzen dituen araudia, erabilitako eremuak eta nabeek paisaian duten eragina saihesteko laguntzak

Nola konponduko zenuke landa-guneko nabeen arazoa, paisaian eraginik izan ez dezaten?

1. Eraikinen araudia erregulatuz

- “Nabeak eraikitzeako material motak araupetuz, homogeneoa izan dadin, eta ahal den neurrian, ez dezan landa-giroa apurtu”.
- “Homogeneoki eraiki daitezela, ahal den neurrian ez daitezen deigarri gertatu, eta horientzako guneak jar daitezela”.
- “Agian irtenbide errazena da udal ordenantza edo araudiak egitea eraikuntzan erabili behar diren materialak zehazte aldera, paisaian integratuta gera daitezen (hormen kolorea, inguruan zuhaitzak landatzea, garaiera gutxi etab.)”.
- “Proiektu berrientzat antolamendu egokia sortuz eta badaudenak leheneratzeko modua aurkituz. Araudi berri batekin eta gauzatzeko bidezko epearekin”.
- “Eraikitzeako irizpideak bateratuz, azkar hazten diren zuhaitzak erabiliz, makalekin edo paulowniekin profilak disimulatzeko”.
- “Materialei eta zuhaitzei edo antzekoei dagokienez, neurri zehatzak hartu behar dira. Beharrezkoa da azterketa sakonago bat egitea, pabiloiaren titularrari ahalik eta gutxien eragin diezaion. Saihestezina da aurrefabrikatutako metodo eta xaflen bidez eraikitzea, hori delako modurik errazena eta ekonomikoena”.
- “Eraikitzeako irizpideak bateratuz, azkar hazten diren zuhaitzak erabiliz, makalekin edo paulowniekin profilak disimulatzeko”.
- “Landa-guneetako nabeentzako baldintza batzuk jarritz”.

2. Nabeentzako gune bat jarritz

- “Ez da landa-gunean eraiki behar. Nabeak eraikitzeko gune bat jarri beharko litzateke landa-gunetik kanpo”.
- “Nekazariak biltoki handi bat behar du makinak gordetzeko. Etxe atxikiak egiten badira, biltokiak egingo dira. Herritik hurbil egingo lirateke, ibarrean, paisaia apurtu gabe eta inguruan beti zuhaitzak jarritz”.
- “Nabeak kokatzeko hiri-guneak jarritz”.
- ““Nekazaritza-poligonoak” sortuz, horrelako eraikinak bertan jartzeko”.
- “Hiri-eremuetan eraikiz, poligonoetan, eta bertan pilatuz”.
- “Horretarako gune zehatzak prestatuz”.
- “Nabeak poligonoetan jarritz”.

Baina baita....

- Ez zait ezer bururatzen, nabeentzako gune berezi bat jartzea okerrago baita.

3. Dauden nabeen estetika hobetuz

- “Urruti dauden leku berezietan jartzea ez da konponbidea nekazariarentzat, ez da eroso. Hobe da kamuflatzea”.
- “Eraikita daudenak landarez (zuhaitzez) inguratuz”.
- “Landareekin disimulatuz”.
- “Inguruan zuhaitzak jarritz”.
- “Zuhaixkak edo zuhaitzak jarritz eta berdez edo marroiz margotuz”.
- “Ondo margotuz”.
- “Inguruan zuhaitzak jarritz”.
- “Lardaskeriarik” ez egiteko exijituz. Xaflarik ez. Prezioak egokituz”.
- “Harriarekin”.

4. Laguntzak

- “Paisaiarekin bat datozen nabeak egiteko laguntzak”.
- “Gauza polit bat egiteko dirua eman diezadatela bururatzen zait, eskatzea erraza baita, baina ordaindu egin behar da”.
- “Diru publikoa erabiliz”.

5. Beharrezkoak diren nabeak bakarrik eraikiz

- “Kontuan hartu behar da halaber, pabiloi bat eraikitzen duten guztiek egiaztatu behar dutela euren jarduera aurrera eramateko beharrezkoa dutela, eta jarduerarako lehentasunezkoa dela.
- Aipaturiko guneetatik kanpo eraikitzea ahalik eta gehien mugatuz, eta interes orokorrekoa (erreala) denean bakarrik ematea baimena.

6. Beste batzuk

- Pabiloiak mugatuz, pertsonako kopuru jakin bat
- Gehiago ez eraikiz

Ez da arazo bat, beharrezkoak dira

- “Nabeak paisaiaren zati dira, ez dute eraginik, paisaia bera dira. Zer da ustiategi bat naberik gabe? Berezko paisaia aldatuko genuke.
- “Bere horretan ondo daude”.
- “Ez da arazo bat. Beharrezkoak dira”.
- “Orain ez dira egiten”
- “Ondo egiten badira, egon daitezke”.
- “Ondo daude, nekazariak behar dituzte”
- “Nabeek nonbait egon behar dute”.

Argibide gehiago eta elkarrizketa, praktika produktiboak eta paisaia zaintzea bateragarriak izan daitezten

Zer egin ahalko litzateke hiriguneak narriatuta ez egoteko?

1. Kontzientziatu, sentsibilizatu

- “Lokalak eta turistak mentalizatzea hirigunea zaindu eta mantentzeak duen garrantziaz, horretarako, esaterako, zaborrak bota eta jasotzeko neurriak eta baliabideak jarri, birziklatzea sustatuz”.
- “Uste dut arazoa ez dela aurrekontua, baizik eta utzikeria. Udalak kontzientziatu behar dira, leku eredugarriak bisitatu”.
- “Uste dut arazo handiena kontzientziatzea eta inguruari errespetua izatea dela, ez baitugu ingurumena errespetatzeko kultura gehiegi”.
- “Birziklatu, zaborra bildu, ez zikindu”.
- “Kultura gehiago izan behar dugu eta gehiago bidaiatu, beste kultura batzuetatik ikasteko. Zaindu egin behar ditugu”.
- “Zabor-bilketa kontu handiagorekin egin eta beste leku batzuetara joan gauzak nola zaintzen dituzten ikusteko”.

2. Hirigintza planak eta kontrola

- “Hirigintza planak eta garbiketa hobetu. Zaborra botatzen duenari isuna edo zigorra jarri”.
- “Udaletako hirigintza planen bitartez kontrolatu”.
- “Estetikari buruzko ordenantza zehatzak. Borondate politikoa”.
- “Merkatu ibiltariak eta txabolak kontrolatu”.
- “Administrazioen aldetik kontrol gehiago eta kontu handiagoa”.
- Araudi bat, urte batzuen buruan narriatutako eraikinei eta aurreko egoeran daudenei aplikatzeko. Eraiki aurretik urbanizatu.
- “Merkatu ibiltariak eta txabolak kontrolatu”.

3. Mantenimendua eta birgaikuntza sustatu

- Hiriguneen mantenimendua sustatu; ez kontserbatzea da benetan narriaduraren arrazoa.
- “Orain arte, etxe zahar adierazgarrienei babesa eman zaie, besterik ez, eta horrek mantentzeko eta beharrezkoa denean berreraikitzeko trabak jarri besterik ez du egiten. Birgaitu behar diren eraikin guztiak birgaitzea ahalbidetu beharko litzateke, eta eraikin berrietarako irizpideak bateratu”.
- Oso erraza da administrazioek azpiegitura ezberdin eta berriak eraikitzeko diru-laguntzak ematea, baina zaila da horiek behar bezala mantentzea. Gainera, gure herri batzuen inguruan, zerbait egiten saiatu diren arren, Aldundiak, bere araudiaren bitartez, ez die utzi.
- Langabezian daudenei lana eman eta eraikinak dauden bezala mantendu.
- “Jabeei pizgarriak eman, ez dakit nolako pizgarriak, ondasunak konpondu, zaindu eta berritzaileko arlo horretako ordenantzak aintzat har ditzaten”.

“Eskakizun guztiak konpentsatzeko laguntzak eman, gauzak gero eta hobeto egin daitezzen”.

- “Diru-laguntzak”.
- “Diru publikoa inbertitu konpontzeko”.
- “Ez dagoen diruarekin mantendu”.
- “Hiria eta hiriko eraikinak zaindu udalek eta gainontzeko erakunde publikoek duten diruarekin”.

Ez da uste narriatuta dagoenik

- “Uste dut landetxeak dauden moduan mantendu behar direla. Ondo daude”
- “Herri zaharra da. Ondo dago”
- “Ezer ez, Guardia ondo dago bere horretan. Landa-giroaren itxura du”.
- “Guardia ondo zainduta dago. Fatxadak garbitu”.

Sentsibilizazioa eta konpentsazio ekonomikoa, praktika produktiboak eta ondarea bateragarriak izan daitezzen.

Nola bateratu ahal dira nekazarien interesak eta batzuetan euren lurretan dituzten ondare arkeologiko eta kulturala? Ze konponbide proposatuko zenuke?

1 Sentsibilizatu, informatu

- “Ondareak duen garrantziaren inguruan jendea kontzientziatu. Nekazariekin hitz egin eta argibideak eman, eta besteok ere jakin beharko genuke zer egin behar dugun horrelako zerbaiten aurrean”.
- “Gauza biak egin daitezkeela kontzientziatu”.
- “Herritarrak eta politikariak kontzientziatu”.
- “Nekazariak, jabeak eta politikariak sentsibilizatu. Seinaleak jarri eta ondarearen inbentarioak egin”.
- “Informazioa, interes handia eta inplikazioa, batez ere tokiko eta eskualde mailako agintarien aldetik. Ondare honi buruzko inkesta baten bidez azaldu daiteke”.
- “Nekazariari azaldu beharko litzaieke litekeena dela bere lurretan aztarna arkeologikoak aurkitzea, eta hori gertatuz gero, nekazariak udalari edo dagokionari jakinarazi beharko dio”.
- “Nola lan egin eta zer egin azaldu, eta, lan egiteari utzi behar bazaio, zerbait eman beharko diete lurren jabeei”.

2. Konpentsatu

- “Nola saritu ahal da lurra erosten dirua inbertitu ondoren lur horretan aztarna arkeologikoak daudela ikusi duen nekazariari? Aldundiak lur hori erosi beharko lioke?”.
- “Kultura Sailaren eta udalaren laguntzarekin”.
- “Bizitza honetan beti gertatzen den bezala, kontua da alde guztiek eman behar dutela zerbait, eta interesa badago eta sen on pixka batekin, ez litzateke arazorik egon behar”.
- “Lurragatik balio duen dirua ematen badidate, ikusiko dugu”.
- “Diru-laguntzak”.
- “Konpentsatu, konpentsatu, konpentsatu”.
- “Lurraren jabetza kentzeagatik ordaindu”.
- “Politikariak eta jabeak trebatu, eta ezin badute lurra landu, ekonomikoki konpentsatu”.
- “Trukean antzeko lurra eman, edo jabetza kentzen bada, konpentsatu”.
- Zu lanean ari zara, ezin zara egun guztian zerbait interesgarria dagoen begira ibili, ordain dezatela!

Beste erantzun batzuk

- “Ondare arkeologikoa errespetatu behar da, eta, horretarako, mantendu egin behar da. Kulturari dagokionez, tokiko kulturaren zati da nekazaritza; beraz, mantendu eta sustatu egin behar da. Gure ondarea da”.
- “Dagoeneko bateragarriak dira”.

Erantzunik gabe

- “Sentitzen dut, ez zait ezer bururutzen. Arazoa da, izan da eta izaten jarraituko du, baita landu gabeko guneeetan ere, esate baterako Navaridasen, Alto de Castejónen, eta Eltziego – Leza errepidearen handitzeari eragiten dio”.
- “Pentsatzeko denbora beharko nuke”.
- “Ez dauka zerikusirik”.
- “Mugak errespetatuz eta paisaian integratuz. Horretarako, seinaleak jarri eta GR ibilbideak hobetuko dira, landa-turismo bateragarria mantentze aldera”.

Ondorioak

- Zaborteziak kontrolatzea, akuiferoak mantentzea eta mahatsondoaren nahiz olibondoaren kultura sustatzea dira aipatutako paisaia-kalitatearen helburu nagusiak.
- Gehiago sentsibilizatzea, trebakuntza eta elkarrizketa eta zigorrak; horietan dira praktika produktiboak eta paisaiaren zaintza bateragarri egiteko proposatu diren konponbideak. Askok uste dute ez dagoela praktika txarrak.
- Gehienek uste dute lehorreko labore ezberdinak egon daitezela. Horien hedapena errentagarritasunaren arabera, batez ere, izango litzateke.
- Eraikin berriak arautzen dituen udal araudia, dauden nabeen estetika hobetzea, nabeentzako guneak eta laguntzak dira nabeek landa-lurretako paisaian duten eragina saihesteko proposatutako neurriak. Hala ere, batzuen ustez, ez da arazo bat, beharrezkoak direla uste baitute. Ezin da saihestu.
- Hiriguneen narriadura itxura saihesteko konponbideei buruzko galderari dagokionez, hezkuntza eta sentsibilizazioa, hirigintzako planak eta kontrola, eta zigorrak izan dira erantzunak. Halaber, uste da ez kontserbatzeak narriatzen duela. Beste batzuek, aldiz, ez dute uste hirigunea narriatuta dagoenik.
- Nekazaritzaren interesak zenbaitetan lursailtan agertzen den ondare arkeologikoarekin eta kulturalarekin bateragarriak izan daitezela, honako konponbide hauek proposatu dira: sentsibilizatzea eta trebatzea, horrelako kasuetan nola jardun jakiteko, eta jabetzagarri ekonomikoki konpentsatzea.



Herritarren parte-hartzea Enkarterriko Paisaiari buruzko Katalogoa egitean

2. etapa. Paisaiaren kalitate-helburuak eta hobetzeko neurriak

Herritarrei egindako inkesten emaitzak

- ❑ Txostenean jaso da Enkarterriko biztanleek paisaia-kalitatearen helburuen gainean egindako balorazioa. Katalogoa idatzi duen taldeak proposatu ditu helburuak eta aldez aurretik egiaztatu dira Enkarterriko eragileekin.
- ❑ **Eremu Funtzionaleko honako udal hauetara bidali** dira galdeketak: Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Karrantza Harana eta Zalla (eta horien barruan hainbat sailetara, besteak beste, Kulturara, Turismora eta Berdintasunera). Halaber, ekonomia eta landa garapenerako erakunde, kirol elkarteetara, kultur elkarte, turismo elkarte, ekonomia garapenerako elkarte eta abarretara bidali dira, haien kontaktuei birbidaltzeko asmoz. Horretaz gain, 2012ko apirilaren 4an inkesta bat egin zen in situ.
- ❑ Jasotako galdeketak: **91**.

Sexua

% 53	Emakumeak
% 47	Gizonak


Adina

% 3	25 urte baino gutxiago
% 48	25-44 urte
% 37	45-64 urte
% 11	65 urte edo gehiago

Galdeketak erantzun dituzten pertsonen harreman estua dute euren paisaiarekin


PAISAIAREKIKO LOTURA

Enkarterrirekiko lotura (behar beste aukera markatu)




Zallako biztanleak izan dira 2. etapa honetan gehien parte hartu dutenak

Adierazi non bizi zaren



Poligonoak, eta paisaia naturala eta ibaietako paisaia dira aipatutako helburu nagusiak

Baloratu paisaia-kalitatearen helburuek duten lehentasuna eta premia, Enkarterriko paisaia hobetu ahal izateko:



Eskualdeko ekonomiari bultzada emango lioke (turismoa eta abar)

- “Ez dut arazorik ikusten. Logikoena da babestea, nekazaritza eta abeltzaintzako beharrianak aintzat hartuz. Gaur egun, produkzio jasangarrietara jotzen da, ingurumena zaindu eta ingurura egokitutako produkzioetara. Paisaia “aldatu” daiteke, baldin eta gauzak ondo eta begirunez egiten badira”.
- “Babestuz gero, abeltzaintza indartu egingo litzateke, behar-beharrezkoa baita paisaia horiek sortu eta mantentzeko. Gainera, turismoa sendotuko litzateke, zalantzarik gabe”.
- “Antolatuz gero, ekonomiarentzat mesedegarri izango litzateke”.
- “Babestutako gunea handitzea hiritarren mesederako izango da, noski. Beharbada, dirua erraz irabaztera ohituta daudenen etekin ekonomikoak murriztuko dira. Nekazari txikien kasuan, babestu egin beharko lirateke, paisaia bezala”.
- “Gure ingurua babestea turismoaren mesederako izango da”.
- “Turismoa ekonomia sustatzen duen jarduera da, eta nola edo hala Enkarterriko nekazaritzari lagundu diezaioke”.

- “Baliteke horrela turismoa eta nekazaritza haztea”.
- “Benetan uste dut eskualdearen mesederako izango litzatekeela; izan ere, mendi-turismoari esker diru-sarrerak handituko lirateke, turista horiek eskualdean jan eta ostatu hartuko luketelako”.
- “Argi dago onerako izango litzatekeela, inguruan turismoa erakarriko luke eta. Enkarterrin azpimarratzekoak dira, besteak beste, haranak, mendiak eta zuhaitzak, eta azpiegituren inbasioak kalte izugarria egiten dio paisaiari”.
- “Turismoa sustatuko lukete”.
- “Hau guztia oso garrantzitsua da, baina Enkarterrin lehentasuna du enplegua sortzeak, funtsezkoa da”.
- “Turismoaren, abeltzaintzaren eta nekazaritzaren mesederako izango litzateke”.
- “Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza sustatuko lituzke”.
- “Gauza guztietarako izango litzateke gomendagarria”.
- “Uste dut turismoaren mesederako izango litzatekeela”.

Agian bai, agian ez

- “Eztabaida ezin da izan babesa ala jarduera ekonomikoa. Abeltzaintza estentsibo tradizionala funtsezkoa da handitzea gomendatu den gune horietako paisaia moldatzeko. Jarduera orekatu hori mantentzen den neurrian, paisaiaren elementuak mantenduko dira. Arriskutsua da babesa (zer da babesa?) abeltzaintzaren aurka jartzea”.
- “Handitu behar diren guneak banaka aztertu beharko lirateke, argi utziz noiz duen lehentasuna gune horiek babesteak eta noiz ez. Horretarako, basoko inbentarioak egin behar dira eta babestutako espezieak edo bereziki interesgarriak diren espezieak non dauden identifikatu, haiek ere babesteko. Beste kasu batzuetan uztartu ahal dira, hau da, lehenagotik artzaintza dagoen lekuetan, berez dauden birpopulatutako guztiak babestu daitezke babes-hodiak erabiliz. Horrela, garapena bermatuko da eta, aldi berean, abereentzako bazka aprobetxatuko da, baso eta artzaintzarako ustiapen jasangarria lortuz”.

Gehiengoa hiriguneen hedapena kontrolatzearen alde dago.

Ados al zaude hiriguneak inolako bereizketarik gabe hedatzea saihestearekin, benetako beharrezanei egokituta? Hiriguneen inguruko zein babestu beharko lirateke (zelaiak, baratzeak, ubideak...)?

Ados

- “Bereizketarik gabeko hedapena saihestu behar da, eta, batez ere, ibaien ibilguak, babestutako espezieak eta bereziki interesgarriak diren espezieak, gune homogeneoak eta banaezinak zaindu behar dira. Benetan hedatzeko beharra dagoenean, zelaiei, baratzei eta abarri eman behar zaie lehentasuna. Kasuak banaka aztertuko dira, eta kasu horietarako beste konponbide batzuk proposatuko dira”.
- “Bai, hirigintzako garapenak, azpiegiturak eta baso-landaketak (zelaiak transformatzen ari dira) landazabaleko paisaia tradizionala irensten ari dira, batez ere gune nagusien kanpoaldean”.
- “Herriak ez dira gehiago hedatu behar, dauzkagun etxebizitzak bete behar dira, eta eraikitzen bada, herrien mugen barruan egin beharko litzateke, iraunkortasuneko irizpideak aintzat hartuz. Halaber, kaleko bizitza garatzeko guneak sortu behar dira, eta baita ere, oinezkoentzako pasaguneak auzoen artean nahiz erdiguneetan, ibilgailuetatik babestuta. Eraikinak eta eraikinen ingurua eraikitzeko, kontuan hartu behar da non dauden kokatuta, bai funtzionalki, bai estetikoki. Biztanleek parte hartzea ere garrantzitsua izango litzateke herriaren etorkizuna erabakitzerakoan”.
- “Erabat ados. Eraikinak landaguneetan baino ez lirateke egon behar, bertan zerbitzu guztiak baitaude: argia, bideak eta ura, batez ere. Landagunean bakartuta eraikitzen diren etxe guztiak dituzte paisaiari eragiten dioten instalazioak: linea elektrikoak, bideak, eta abar. Gainera, ikusirik zenbat baserri dauden abandonatuta, ez dauka zentzurik”.
- “Azterlan espezifikoa egin premia “ERREALEKIN”, eta, noski, ubideak nahiz ahalik eta zelai eta baratze gehien”.
- “Bai, ezin ditugu galdu gure ezaugarri diren gune berdeak”.
- “Bai. Hirigunea errespetatu egin behar da, baina aurreko irizpide bera erabili behar da. Funtsezko gauzak babestu behar dira, eta, gainontzeko espazioa, erabili eta aldatu ahal izango da, betiere ingurumena, ondarea, eta abar errespetatzeko oinarrizko printzipio batzuk kontuan hartuta”.
- “Guneen hedapena mugatu behar da, ez dago etxebizitza berririk egin beharrik. Daukagun ondarea berritu eta berrerabili behar da”.

- “Bai. Ibaien ubideak babestu behar dira, noski, zuhaitz autoktonoen guneak”.
- “Bai, ados nago. Ubideei lehentasuna eman behar zaie; izan ere, Cadagua, esate baterako, bisoi europarren habitata da. Hala ere, zelaiek eta baso autoktonoek ere lehentasuna dute”.
- “Ondo iruditzen zait egungo paisaiarekin txertatutako hirigintza-plangintza gauzatzea. Dena den, uste dut gune batzuk etxebizitzak eraikitzeko izan beharko lirатеkeela, azken aldian gazteen artean joera gune naturaletan bizitzea baita”.
- ““Zementuaren” eta “adreiluaren” hedapena kontrolatu behar da. Gaur egun, Enkarterriko herri gutxitan daude zelaiak, landak, baratzeak... Izan ere, dena desjabetu da eraiki ahal izateko. “Altxor” horiek zaindu behar dira, gure ezaugarriak dira eta”.
- “Bai, ados nago. Daukagun altxorrik garrantzitsuena zaindu behar dugu, hots, natura garbia. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi enpresa eta baliabide turistikoaren arloan ezin denik hazi”.

- “Hirian nahiz landaguneetan daude etxeak abandonatuta. Birgaitu eta okupatu ditzatela. Hutsik daudenak okupatu arte, ez dugu gehiago eraiki behar”.
- “Herrietan hutsik dauden etxeak okupatu ditzatela berriak egin beharrean. Baserriak birgaitu ditzatela”.

Beste batzuk

- “Bereizketarik gabe hedatzea, ez. Guneak arrazionalki hedatu behar dira despopulatzea saihesteko”.
- “Hiriguneak bereizketarik gabe hedatzea saihestu. Hazi behar bada, ez dut ikusten arazoa non dagoen, leku batzuetan ez baita inor bizi”.
- “Hau dagoeneko eztabaidatu zen Lurralde Antolatze 99ko Gidalerroetan, baina ez zen betearazi”.
- “Hiriguneen hedapena ez da kaltegarria berez, kontua da nola egiten den”.
- “Ez dago ezer hutsik”.
- “Ez nago ados”.

- “Hiriguneak bereizketarik gabe hedatzea saihestu. Hazi behar bada, ez dut ikusten arazoa non dagoen, leku batzuetan ez baita inor bizi”.
- “Hiriguneak nahiko handiak dira, ez dute hazterik behar. Are gehiago, ez litzateke gaizki egongo horiek murriztea. Bizkaian hiriak edukitzeko nahikoa leku dago”.

Hainbat proposamen eta diru-laguntza publikoa eskualdeko ondarea balioesteko.

Ze neurri osagarri proposatzen dituzu eskualdeko ondare aberatsa babesteko? Ze pizgarri eman ahal zaizkie jabeei ondare pribatua Berritu dezaten? Zein izango litzateke administratzailearen papera?

Proposamenak

- “Katalogoak egiten ari dira. Indarrak koordinatu behar dira. Funtsezkoa da laguntza ekonomikoak jasotzea eta legea aplikatzea. Akatsa larria da herrietako arkitektura tradizionalari egokitutako tipologia arkitektonikoak sortu nahi izatea. Gehiegikeriak ekidin behar dira, baina arkitektura modernoari garatzen utzi behar diogu. Enkarterrin hainbat mendetako eraikinak daude. Zergatik ez XXI. mendekoak? Ezin gara bizitza osoan baserriak eraikitzen ibili. Gainera, nola definitu dezakegu Enkarterriko eredua? Eredua asko daude eta orain egiten diren baserri moduko txaletak ez dira Enkarterriko eredua”.
- “Administrazioak sakonki aztertu beharko luke zaindu beharreko guztia, eta behar bezala berritzera behartu. Horretaz gain, administrazioak lagundu egin beharko luke, eta lehentasuna elementu motaren eta degradazio mailaren arabera eman beharko litzateke, jakina, “BERANDU EZ HELTZEKO”.
- “Administrazioak 15/20 urteko berreskurapen-plana prestatu behar du, diru-laguntzekin edo zuzenean egikaritzuz; pribatua bada, gastuak jabearen kontura geratuko dira”.
- “Eraikin berriak mugatzen badira, eraikita dagoena birbaloratzen da. Etxebizitzaren eskaera berriak dagoeneko daukagunera zuzenduko dira eta erabiltzen ez diren eraikinak birgaitzea sustatuko da”.
- “Berpiztera bultzatzen duten neurri fiskalak aztertu. Higuezin horiekin eta euren ezaugarriekin bat datozen jarduera ekonomikoak abiaraztea sustatu. Udal antolamenduan berritzeko ekintzak ahalbidetzen dituzten formulak bilatu”.
- “Eraikin interesgarrien eta aurre-egoeran dauden baserrien jabeak estutu behar dira, etxebizitzak konpondu ditzaten eta bertan jendea bizi dadin, edo bestela, konpondu eta bertan bizi nahi dutenei eman diezazkieten. Penagarria da mendi inguruetakoa baserriak eta eta herrixkak aurre-egoeran ikustea.
- “Lehenengo eta behin, uste dut katalogo bat egin beharko litzatekeela benetan zaindu behar diren elementu guztiekin. Bigarrenik, eraikina egoera onean ez badago, jabeak baliabiderik ez duelako izango da, eta besteen etxeetan gauzak jartzera behartzearen aldekoa ez naizenez, administrazioak etxe horiek hartzea proposatuko nuke”.

... proposamenak

- “Administrazioak honako pauso hauek eman behar ditu: inbentarioa egin, babestu eta sailkatu (udala, Unesco, kultur interesa), eraikin berriak (iraunkortasuna barne)”.
- “Jaraunspen publiko batzuk ez daude babestuta... Beraz, administrazioak badu jaraunspen pribatuekin sartu aurretik zer egin”.
- “Administrazioak ondare pribatua birgaitzeko erraztasunak eman behar dizkie jabeei; izan ere, aberasteko modu bat izan daiteke. Lurrak zaintzeko neurriak hartu ahalko lirateke”.
- “Bertan bizi den jendeari doan berritzeko eskatu ahalko litzaioke, horretarako gauza zaharrak erabiliz. Administrazioak ekimen honen alde egin behako luke”.
- “Etxeak landetxe bihurtu”.

Diru-laguntzak

- “Diru-laguntza partziala, kasu bakoitzerako proportzionatua eta justifikatua. Horretarako: - Jabeak berritzeko aurrekontua aurkeztu beharko luke. – Administrazioak berritzeko aurrekontu hori aztertu eta onetsi edo atzera botako luke – Diru-laguntzen tarreak zehaztu, jabe bakoitzak jarri behar duen zenbatekoaren arabera. - Administrazioak beste konponbide batzuk eman eta iradokizunak egingo lituzke”.
- “Egia esan, diru-laguntzarena, partikular bati ezin baitzaio denona den ondarea “zaintzeak” dakarren kastua bere gain hartzeko eskatu”.
- “Ez dagoen dirua jarritz, eta, nire ustez, natura zaintzen gastatu beharko litzateke”.
- “Suposatzen dut sustatzeko modurik errazena dirua ematea dela, gastua handia baita. Baina pena da ondarea zaindu gabe dagoela ikustea”.
- “Une onetan egoera nola dagoen ikusita, Administrazioak egin dezakeen gauza bakarra horretarako laguntzak ematea da, eta hori egitera behartu, jakina”.

...diru-laguntzak

- “Administrazioak ematen diren diru-laguntzen bidez eraikin horiek egokitzeko aukera proposatu beharko lieke jabeei. Askotan jabeek ez dute aukera horren berri izaten. Ideia ona izango litzateke “aurri-egoeran” dauden eraikinak aldi jakin batez administrazioari lagatzea, informazio gune, aterpetxe, eta abar bezala erabiltzeko. Lagatze-kontratu hori luzatzeko aukera egongo litzateke”.
- “Naturarekin egiten den moduan, arkitekturako ondarea ere zaindu egin behar da. Lan horretan administrazioaren eginkizuna garrantzitsua da, ondarea mantentzearen aurretik interes ekonomikorik ez jartzeko. Jabe pribatu batek bere ondarea berritzea oso zaila da, besteak beste, jabea ez delako inguruan bizi eta ondorioz, ez zaiolako konpontzea interesatzen, edo oso garestia delako. Administrazioen aldetik diru-laguntzak egon beharko liriateke. Gainera, bizilagunek ezere truke laguntza eman beharko lukete”.
- “Administrazioak ondare pribatua birgaitzeko erraztasunak eman behar dizkie jabeei; izan ere, aberasteko modu bat izan daiteke. Lurrak zaintzeko neurriak har litezke”.

Ez da une egokia, ez du lehentasunik, eta beste batzuk

- “Jabeei dirua ematea ondo dago baina krisian murgilduta egonik ez dut uste lehentasunik duenik. Ondasunak badituzte, zaindu ditzatela. Nik baneukan bat eta saldu egin nuen”.
- “Ez dut uste horretarako dirua eman behar denik”.
- “Ez dut uste jabeei ordaindu behar zaienik. Euren eginbeharra da dituzten ondasunak egoera onean mantentzea. Bestela, sal ditzatela”.
- “Ez zait garrantzitsua iruditzen”.
- “Ez zait ondo iruditzen horretarako diru publikoa ematea. Nire ustez, birgaitu behar bada, lan hori egiteko jendea kontrata daiteke”.
- “Lanik ez dugun gazteontzat dirurik ez badago, ez lukete diru hori etxeen jabeei emanez gastatu behar; izan ere, ziur dirua badutela eta ez direla hemen bizi”.
- “Natura babestu behar da. Etxeak dituztenek konpon ditzatela”.

Eskualdeko azpiegituren eragina murrizteko hainbat proposamen.

Zer egin liteke azpiegitura handien (autobiak, errepideak, linea elektrikoak, telekomunikazioak...) eragina murrizteko? Eragin horiek murrizteko hartzen diren neurriak nahikoak al dira?

Proposamenak

- “Bai, hobetu daitezke, horien diseinua arrazionalizatuz eta gune berean jarriz.
- “Beti egin behar da ingurumenean izan dezaketen eraginari buruzko azterlan zehatza, eta ezin da hasi beharrezko baimen guztiak eskuratu arte. Gainera, auziak behar bezala argitu behar dira eta administrazioa izan behar da arau-hausteen erantzule”.
- “Lor daitezkeen irabaziak ingurua hobetzeko erabili. Bide bat egiteko zementuzko ezponda sortu behar bada, zati bat inbertitu behar da inguru hori espezie autoktonoekin birpopulatzeko eta eraikinak berritzeko”.
- “Eraikitako azpiegitura bat azpiegitura lineal berriak eraikitzeko aprobetxatzen den kasuetan posible da hobetzea, eta, ahal den neurrian, azpiegituren linea berriek espazio naturalak zeharkatzea saihestu behar da”.
- “Hobetzen ari da, baina proiektuak onetsi aurretik publizitate gehiago eman behar da”.
- “Egungo politikak irizpide ekonomikoak baino ez ditu kontuan hartzen, ahalik eta irabazi gehien inbertsio txikienarekin, eta inguruan linea gehiegi daude. Dauden lineak bateratu behar dira, ahal bada inpakturik handiena dutenak lurperatu, etxebizitzetatik banatu eta behe zein erdi tentsioko lineak behar bezala mantendu. Inguru honetan sarritan egoten dira itzalaldiak, eta horien ondorioz, ondo mantenduta baino askoz diru gehiago galtzen da. Pinuak etengabe erortzen dira lineetara”.
- “Promotoreek baldintzak, iradokizunak eta beste proposamen batzuk onartzen badituzte, posible da hobetzea”.
- “Bai, hobetu daitezke, korridoreak sortuz”.
- “Linea elektriko berriak dauzkagun azpiegituren paraleloan jarri behar dira”.
- “Komunikabide berriak ez dira beharrezkoak. Daudenak berez berritzen dira, salbuespen batzuk kenduta. Autobia berriak eraikitzeak bizi-kalitatea kaltetu dezake”.

Proposamenak

- “Hobetu daiteke, berriak beharrezkoak direnean bakarrik instalatuz, eta, gauzatu aurretik, paisaian duten eraginari buruzko azterlanak eginez”.
 - “Behar bezalako sarbideak behar ditugu eta iraunkortasuna errespetatu behar dugu. XXI. mendean gaude. Honako hauek hobetu daitezke: Bentorro auzotik industrialdera, Atxuriagako parkera eta San Pedro auzora heltzeko modua zabaldu. Sopena-Gueñes errepidea hobetu”.
 - “Argi dago neurriak ez direla nahiko. Beti dago hobetzeko zerbait: - Hain sakabanatuta egon beharrea, linea elektrikoak gunetik joan beharko lirateke, eta ez lirateke natur balioko eta balio ekologikoko gunetatik pasatu behar. –Errepideak, autobiak, eta abar eraikitzerakoan, faunarentzako pasabideak egin beharko lirateke harrapatzeko arrisku gehien dagoen lekuetan, bai eta gunek kritikoak seinalatzeko ere”.
 - “Neurriak ez dira nahiko. Landareekin eta begetazioarekin kamuflatu eta hobetu daiteke. Errepideetako alde bietan zuhaitzak jarri”.
- “Cadaguako Korridorea sortzea ez da nahikoa. Hainbat lekutan, Karrantzan eta Lanestosan, esate baterako, horrelakoak eraikita paisaia guztiz aldatzen da. Errepideak sarriago konpondu beharko lirateke”.
 - “Ekologikoa izan ez arren, nahiago dut errepideak egotea. Isolatuta gaude”.
 - “Garrantzitsuena antenak kentzea da, osasunarentzat kaltegarriak baitira”.
 - “Errepide handiagoak behar ditugu”.
 - “Diru publikoarekin azpiegitura gehiago egin beharko lirateke”.

Komunikabideetan eta sare sozialetan publizitatea, zerbitzu eta jarduera berriak izan dira eskualdea ezagutzen laguntzeko proposatutako konponbideak

Enkarterriko paisaia anitz eta aberatsa balioesteko begiratokiak eta ibilbideak...

Ze beste ideia proposatu ditzakezu eskualdea ezagutzeko?

Proposamenak

- “Meatze-inguruak eta kultura nahiz historia ondarea bisitatzeko ibilbide gidatuak. Eskualde honetako eta beste eskualde batzuetako ikastetxeekin bisita horiek adostu. Kirolerako gune ekologiko bat sortu Galdamesko meatzaldean (ferrata bidea, Zugaztietatik irteerak, eta abar)”.
- “Turismo Sailaren laguntzarekin eta paisaia zaintzearen alde dauden elkarten laguntzarekin herri bakoitzean enpresa txiki sortu, turismo aldetik interesgarriak diren ibilbideak eta bidezidorrak sortzeko, ibilbideak eta monumentu interesgarriak seinalatzeko, errepideetan, bidezidorretan eta errekatxoetan basoa birsortzeko eta basoetako pistak kontrolatzeko”.
- “Turismo azoketan ezagutzera eman. Komunikabideetan iragarkiak jarri”.
- “2.0 estrategiak prestatu internet erabiltzen dutenek eskualdea ezagutu dezaten”.
- “Web orrialdeak, erakundeen publizitatea, turismo kanpainak”.
- “Diru-laguntzak basogintza arloari kendu eta abeltzain tradizionalei eman behar zaizkie. Paisaia zaintzen badugu, epe luzera bisitariak erakarriko ditugu”.
- “Barrera psikologiko bat dago; Enkarterri urruti eta gaizki komunikatuta dago”.
- “Uste dut paisaiaren gaiarekin izurra izurtuko dugula eta kaltetuek txantxetan ari garela uste izango dute. Ondareari buruzko Legea, babestutako espezieak, Babestutako Naturguneen agiriak, Inbaditzaileei buruzko Errege Dekretua...Kudeatzaileek gero eta zailago dute kontua. Gainera, ezin dugu konpentsazioekin negoziatu”.
- “Hain gertu dituzten paisaia berri eta ezezagunak ezagutu, gozatu eta errespetatu behar dituztela azpimarratu”.
- “Naturarekin eta eskualdeko historiarekin lotutako gutzia ezagutarazi”.
- “Eskualdean ekintzak egitea bultzatu: bide berdean (aipatu ibilbideetarako sarrera), turismo ornitologikoa, mikologikoa...”.
-

Hainbat proposamen eta diru-laguntza publikoa eskualdeko ondarea balioesteko.

...proposamenak

- “Oinez eta zaldi gainean egiteko ibilbideak, mendiko lasterketa edo martxak...”
- “Enkarterri marka sustatu beharko litzateke. Bilbo edo Guggenheim bezalako marka indartsua, eta administrazioak erabateko laguntza eman beharko liekete gune pobrenei edo ezezagunenei. Inguru hau ahaztuta dago. Hemen bizi denak ere ez du ezagutzen, beraz, kanpoan bizi direnek... are gutxiago”.
- “Gazteei laguntzak eman Enkarterrira bizitzera joan daitezten; Zallara ez, Turtziozera edo Karrantzara bai. Herri askotan jenderik gabe geratzen ari dira”.
- “Telebistan Enkarterriko jende ospetsua agertzen den iragarkiak jarri”.
- “Naturarekin lotutako zerbait egin. Ekoizpen ekologikoko parke bat, gazta egiten eta zuhaitzak landatzen erakusteko, boy scoutak”.
- “Garapen ekonomikorik gabe, ezin da paisaia garatu. Ondo dago inkesta hauek egitea, baina errauskailua, “atocnen”, zabortegia eta beste hainbat gauza edukita, egin behar den lehenengo gauza da horiek kendu edo paisaian duten eragina kontrolatzea da”.
- “Enkarterriko produktuen denda. Publizitatea tokiko aldizkari edo egunkarietan”.
- “Meataritzaren mundua (Gallarta eta Ortuellarekin batera); galdategi erromatarra (Sopuerta, Muskiz); landagunea, paradisu naturala (Artzentales, Karrantza)”.
- “Enkartur itxi eta turismorako benetan erabilgarria den erakunde bat sortu”.
- “Aberatsak izango bagina, etorriko lirateke. Aberastasuna eta enplegua sortu”.
- “Ez dakit Grumeranen (Ventana mendia) begiratokia kontuan izan den, hortik ikusten dira Bilbo, Portugalete, Santurtzi, eta abar”.
- “Joan daitezela mendira. Horrela ezagutuko dute Enkarterri”.

Ondorioak

- Mendikateak babesteak eskualdeko ekonomian ekar ditzakeen inplikazioei dagokienez , ez dago joera nabarmenik. Batetik, abeltzaintzarako kaltegarria eta nekazaritza zein turismorako onuragarria izango litzatekeela uste da. Babestearen aldeko erantzunak kontrakoak baino gutxiago arrazoitu dituzte.
- Gehiengoa hiriguneen hedapena kontrolatzearen alde dago.
- Batetik, eskualdeko ondarea balioesteko, diru-laguntza publikoa eskatzen da, nahiz eta inkestatu batzuen ustez ez den une egokia.
- Eskualdeko azpiegiturek duten eragina murrizteko hainbat proposamen jaso dira.
- Komunikabideetan eta sare sozialetan publizitatea, zerbitzu eta jarduera berriak izan dira eskualdea ezagutzen laguntzeko proposatutako konponbideak.



Herritarren parte-hartzea Urola Kostako Paisaiari buruzko Katalogoa lantzerakoan

2. Etapa. Paisaiaren kalitate-helburuak eta hobetzeko neurriak

Herritarrei egindako inkesten emaitzak

- ❑ Txostenean jaso da Urola Kostako biztanleek paisaia-kalitatearen helburuen gainean egindako balorazioa. Katalogoa idatzi duen taldeak proposatu ditu helburuak eta aldez aurretik egiaztatu dira Urola Kostako eragileekin.
- ❑ **Eremu Funtzionaleko honako udal hauetara bidali** dira galdeketak: Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia (eta horien barruan hainbat sailetara, besteak beste, Kulturara, Turismora eta Berdintasunera). Halaber, ekonomia eta landa garapenerako erakunde, kirol elkarte, kultur elkarte, turismo elkarte, ekonomia garapenerako elkarte eta abarretara bidali dira, euren kontaktuei birbidaltzeko asmoz. Horretaz gain, 2012ko apirilaren 2an inkesta bat egin zen in situ.
- ❑ Jasotako galdeketak: **73**.

Sexua

% 59 Emakumeak
 % 41 Gizonak


Adina

% 8 25 urte baino gutxiago
% 41 25-44 urte
 % 36 45-64 urte
 % 15 65 urte edo gehiago

Galdeketak erantzun dituzten pertsonen harreman estua dute euren paisaiarekin


PAISAIAREKIKO LOTURA

Urola Kostarekiko lotura (behar beste aukera markatu)




Azkoitia, Azpeitia eta Zumaia biztanleak izan dira 2. etapan gehien parte hartu dutenak

Adierazi non bizi zaren



Zabortegi eta harrobien eragina murriztea, itsasertzeko paisaia eta ibaietako paisaia dira adierazitako helburu nagusiak

Baloratu paisaiaren kalitate -helburu hauek duten lehentasuna eta premia, Urola Kostako paisaia hobetzeko:



Konponbide teknikoak, estetikoak eta lurperatzea dira azpiegitura handiek utzitako aztarnak murrizteko proposamenak

Zer proposatzen duzu azpiegitura handiek (trena, A-8, linea elektrikoa eta abar) utzitako arrastoa murrizteko?

1. Konponbide teknikoak

- “Ezpondak biribildu, itxura naturalagoa izan dezaten, eta zuhaixka, landare igokari eta zuhaitz mordoa landatu: barrera begetala”.
- “Kosta ahala kosta gunitatua ekidin behar da hormak, harri-lubetak edo sare metalikoak jarritz, eta horiekin batera, landare igokariak eta zuhaixkak jarritz, itxura naturalagoa emateko. Barrera akustikoak eta landareekin lotutako barrera optikoak etxeetatik gertu. Lineen dorreak, berdez. “Nekazariei argibide zehatzak eman, horrelako kasuetan paisaia ez kaltetzeko nola jardun jakin dezaten”.
- “Flora eta fauna areagotzeko teknikak erabiliz, sareen artean eta jabetza pribatuen artean moteltze guneak sortu. Eta muino-pantailak sortu eta landaketa mistoa, ikusizko eragina murrizteko”.

2. Estetikoki hobetu

- “Eragina murrizteko zuhaitzak jarri”.
- “Zuhaitzak landatu. Azpiegiturak behar ditugu, isolatuta gaude”.
- “Ez zait berdez margotu eta estaltzea gustatzen; nahiago dut azpiegiturak disimulatzeko zuhaitzak edo zuhaixkak landatzea”.
- “Leku guztietan landareak jarri”.
- “Hondartzak babestu. Ez daitezela harrobiak eta fabrikak ikus”.
- “Agian ez dago dirurik, baina egokiena izango litzateke azpiegiturak herrietatik ez pasatzea, Orion bezala”.

Lurperatu

- “Trena Zarautz erditik pasatzen da eta horrek zuzenean eragiten didan aldetik, uste dut lehenbailehen lurperatu behar dela. Suposatzen dut ezin dela dena lurperatu, autopista, sare elektrikoa, eta abar, baina ondo egongo litzateke”.
- “Beduan, Zarautz eta Orio artean, tunel faltsuak eraiki, baita Itziarrera heltzeko igoeran ere. Horrela, hormigoizko hormatzarrak eta luiziak saihestuko dira, eta profila eta jatorrizko errepideak berreskuratuko dira partzialki”.
- “Lurperatu, baina oso garestia da. Ezponden ebakidurak ez hain artifizialak. Metalezko sareak hormetan, landare igokariekin”.
- “Hondartzak ahalik eta gehien babestu. Harrobiak eta fabrikak kamuflatu, Corrugadosekoa, adibidez”.

Beste batzuk

- “Azpiegiturak proportzionalki egin daitezela, beharrianak aintzat hartuta, eta eragina murriztu ahal izateko nahiko baliabide eman daitezela”.
- “Azpiegitura berriak sortu beharrean, daudenak hobetu”.
- “A8 autobidearen 3. erreiak eragin handia izango du Zumaiako Okia auzoan. Eta linea elektriko batzuen kokapenak eragin negatiboa du”.
- “Hirigintzako planeamendu berriak azpiegitura hauen babesguneak errespetatu eta aintzat hartu ditzala. Azpiegiturretatik hurbil etxebizitzak ez eraikitzea”.
- “Azpiegiturak ez daitezela herrietatik pasatu”.
- “Azpeitian inguruko industria da arazoa. Bururatzen zaidan bakarra da disimulatzeko zuhaitzak jartzea”.
- “Udalerrietako hondakinen gaikako bilketa-sistema aldatzeari dagokionez, uste dut zarama zaborrontzietara bota ordez, ez dela gure kaleetan “eskegita” egon behar”.
- “Ez dakit zer, baina Orion zerbait egin beharko litzateke. Autopista da gehien desitxuratzen duena eta herritarrei traba gehien egiten”.

Ez dago arazorik, azpiegiturak beharrezkoak dira

- “Azpiegitura horiek ez zaizkit deigarriak iruditzen. Beharbada ohituta nago”.
- “Azpiegiturak beharrezkoak dira eta ez dut uste une honetan paisaiak lehentasuna duenik”.
- “Corrugados bezalako enpresek plus bat ordaindu beharko lukete paisaia desitxuratzeagatik. Egia esan, ez dakit azpiegitura den. Azpiegiturek ez didate traba egiten. Industrialdeek egiten didate traba, herri alboetan daudenak itsusi-itsusiak dira”.
- “Beharrezkoa da horiek ere egotea, bere horretan gera dadila dena”.
- “Ez dute eragin handirik”.
- “Beharrezkoa da komunikazioa, sarbideak landa giroko herrietara, gauzak dauden moduan mantenduz”.
- “AHT, trenak... hobetu eta modernizatu ahal izateko, beharrezkoa da horiek ere egotea”.

Pintura, multzokatutako seinaleak, argiteria, landaredia eta araudia dira, besteak beste, udalerrietarako sarbideak hobetzeko aipatu diren diseinu-irizpideak

Zer-nolako diseinu-irizpideak hartu beharko lirateke kontuan udalerrietarako sarbideetan, diseinuari, seinaleei, errotuluak arautzeari eta abarri dagokienez?

Udalerrietako sarbideetarako proposatutako konponbideak

- “Udalerrri bateko sarrera zure etxeko sarrera bezalakoa da: ondo-ondo zaindu behar da. Zikina badago eta zaintzen ez bada, esan nahi du ez duzula zure lurra maite, ingurumen hezkuntzarik behintzat ez duzula, eta berdin zaizula gauzak txarto egitea. Gure buruari buruz esaten dugunaren kontrakoa. Biribilguneak garbi eta zainduta; bideak seinaleztatuta, margotuta eta egoera onean; espaloiak eta zuhaitzak; ezkutuko baratzeak eta hondakindegia kendu; partikularren eta enpresen argibideak nahastea saihestu (baterako diseinua duen poste baten jarri); industrialdeetako sarrerak argiztatu eta egokitu”.
- “Espazioa negozio, tailer, denda eta abarren artean. Orain gertuegi daude, eta zorabiatzeko modukoa da”.
- “Errotulu gutxi landa giroko herri txikietan, oro har, zuzenean heltzen baita herrigunera. Udalerrri handietako sarbideen kasuan, estetikaz eta horiek zaintzeaz arduratzen den araudia”.
- “Ordenantza arautzaileak seinale gehiegi daudenean mugak jartzeko. Nortasun korporatiboari buruzko proiektuak garatu eta kanpoko seinaleei aplikatu”.
- “Babestutako naturguneetako panelek ez liokete inguruari eragin behar. Nire ustez, azalera horizontalean jarri beharko lirateke eta ez zutoin bertikaletan. Sinboloen errotulazioa erraz identifikatzeko modukoa eta abstraktua izan beharko litzateke. Aintzatespena lortzeko, kanpainen bidez “hezi” beharko ginatke”.
- “Tailerrak eta hipermerkatuak gutxieneko baldintza batzuk betetzera behartzen duen araudia, eta horiek landareekin ezkutatu”.
- “Gipuzkoako kolorea urdina da. Bestela, berdea edo gorria balkoietan, baserrietan eta abar”.
- “Barrakoi antzeko eraikinak debekatu. Irabazten duten guztia kontuan izanik, azalera handiak zerbait polita egitera behartuta egon beharko lirateke”.
- “Linea estetikoak jarri eta betearazi, eta arau estetiko horiek betetzera behartzen duen araudia aplikatu. Azpeitia penagarria da, nahiz eta ibai zoragarria duen”.
- “Kartel argidun handiegiak eta teilapedun eraikinak debekatu”.
- “Errotulu txikiagoak, saltokiak banatuta. Kolore uniformeagoak eta ez hain biziak”.

Beste batzuk

- “Pintura funtsezkoa da. Proportzioak, garaieretan proportzioak mantendu, eraikinen artean tartekak eta koloreak”.
- “Gaizki dagoena margotzera derrigortu, Ortiz kontserben eraikina, esaterako (Zumaia)”.
- “Gauzak gustuaz egin, Zumaian edo Zarautzen bezala”.
- “Badakit zer ez den egin behar, Zarautz inguruan, Azkoitian egin dutena”.
- “Eraikin bat egiten den bakoitzean, landareak jarri eta itxura leundu; Azkoitia, une honetan, industrialetgia da”.
- “Sen ona, eta baimenak eman aurretik estetika arloko eskakizunak betetzeko eskatu”.
- “Deigarriak izateko, ezberdinak izan behar dira. Berdinak badira, ez diezu erreparatuko. Gutxienez margotu egin beharko lirateke. Garaiera, antzekoa. Errotuluak ez lirateke handiegiak izan behar, norbaitek jakingo du horri buruz jakin beharrekoa”.
- “Loreak, kafetegiak eta berdeguneak jarri”.

- “Udal bakoitzak jar ditzala estetikari dagozkion arauak eta betearaz ditzala”.
- “Dena baxua izan beharko litzateke, deigarria izan ez dadin. Zuhaitzez inguratuta eta gustu onaz egina, herrixka baten antzera, eta ez ijitoen auzo baten antzera. Umeentzako zabuak”.

Bere horretan utzi, ez dago hain gaizki, errotulazioa bi hizkuntzetan

- “Bere horretan utzi, ez du lehentasunik”.
- “Errotuluak euskaraz”.
- “Ez naiz ohartu hain gaizki zegoenik. Ez dakit”.
- “Autobusak lehengo N634 errepidetik joan beharko lirateke herrian sartu beharrean. Oro har, arazo orokorra den arren, Zumaia oraindik ondo dago”.

Tradizioa mantendu, hainbat eredu... Ikuspuntu ezberdinak eraikitzeko ereduaren inguruan

Nolakoa izan beharko litzateke eraikinen eredu tradizionala diseinuari, eraikinen tipologiari, kostaldearen eta barrualdearen arteko ezberdintasunei, ustiapen ereduari, lursailen mugen aldaketari, hesiei, inguruko basoei, araudiari eta abarri dagokienez?

Elkarrizketa

- “Hainbat eredu egon behar dira, ezin gara baserriaren eredu klasikoan harrapatuta geratu. “Neo-baserriak” itsusi baino itsusiagoak dira, hobe da egungo diseinua erabiliz eraiki eta ondo integratzea. Bolumena eta garaiera mugatu behar dira, bai eta etxebizitzaren dentsitatea ere. Lursailaren neurria ez hainbeste. Errepide, erreka eta ibaien inguruetan zuhaitz eta zuhaixkak egon behar dira. Eraikin industrialek gutxieneko diseinu maila bat bete behar dute inguruan integratzeko, ez du balio orain bezala edozein gauza egiteak. Laburbilduz: Perigorden (Frantzia) bezala, baina eraikin modernoekin”.
- “Materialak, bolumenak, etxebizitza-kopurua eta baserri tradizionalaren tipologiak errespetatu behar ditu, eta “aberats berriaren” txaletaren ezaugarri diren elementuak (kareharrizko estaldura industrialak, balkoi korritu handiak, kitsch elementuak...) erabat baztertu behar ditu”.
- “Lehenengo eta behin, kareharrizko estaldurak, balaustradak, balkoi korrituak eta lauzak saihestu behar dira. Inguruetan zuhaitz eta zuhaixkak, bai. Inkesta hau ekimen ona dela iruditzen zait.”
- “Eraikin mota ezberdinak bat etorri beharko lirateke bizitzeko egokitu zaigun garaiarekin. Nire ustez, paisaia babestuta egongo da bilakarazten badugu eta oroi-min erromantikoa dela-eta iraganeko kopiak birsortzen harrapatuta geratzen ez bagara”.
- “Herri, hiribildu edo hiri bakoitzak bere nortasuna mantendu behar du, gustu onarekin, eraikinen altuerari dagokionez irizpide minimo batzuk aintzat hartuz. Gauza ezberdinak politak dira, ez da dena kolore bakarrekoa izan behar. Etxeak bata bestearen gainean egonda ere, politak dira. Muga pasatu besterik ez dago hori ikusteko”.
- “Debekatuta egon beharko litzateke landa-giroko herrietan eraikin altuak egitea, eta denek izan beharko lituzkete identitatea mantentzen duten koloreak”.
- “Etxe indibidualak, baxuak, margotuak, loreekin, Iparraldean edo Hondarribian bezala”.
- “Eraikin altuak debekatu”.
- “Dagoen moduan, ez nuke ezer aldatuko. Lekuz kanpo dagoen gauza bakarra diseinuzko txaletak direla uste dut”.

- “Etxe baxuak, betikoen modukoak. Atxikiak ez”.
- “Loreekin, ondo margotuta edo harrizkoak; altura gutxikoak edo solairu bakar batekoak, teilatu gorriarekin”.
- “Aberats berrien txaletak, Kantabrian egiten direnen antzekoak, itsusiak baino itsusiagoak iruditzen zaizkit. Estilo simple eta alaia da gurea. Itxurak egiten ibili gabe”.
- “Landa gunetako etxeak baxuak dira. Ondo margotuta egon behar dira. Krisi garai honetan, ezin da jendea aparteko gastuak egitera behartu”.
- “Dagoen moduan, ondo dago. Izugarri gustatzen zait nire herria”.
- “Material berriak aprobetxatu hobeto eraikitzeko, baina baserri tradizionalaren betiko funtsa mantendu. Gauza berriak hobeto daude. 60-70eko hamarkadetako eraikin eta fabrikak oso gaizki daude”.
- “Ezin da garapena geldiarazi. Jendea bizitzera herrietara joaten bada, normala da etxeak aldatzea. Garrantzitsua kanpoko itxura zaintzea da, era batekoak zein besteak izan”.
- “Utz diezaiotela jendeari nahi duen moduko etxea izaten, betiere dena garbi badago eta ijitoen moduko txabolarik gabe”.

- “Niri gustatzen zait hemen dagoena. Uste dut ez dagoela zerbait egiteko aukera handirik. Urola Kosta goitik behera ezagutzen dut. Paisaia naturala zoragarria da. Herrietako sarbideak guztiz hondatuta daude. Gutxi libratzen dira. Esate baterako, Azkoitiak, Azpeitiak, Zarautzek, Zumaiak, Zestoak... arazo berdina dute”.
- “Beti bezala. Ez dut uste aldatu behar dugunik, horrela asko gustatzen zait. Beizama eta Aizarnazabal zoragarriak dira”.
- “Kostaldearen eta barnealdearen arteko ezberdintasunak. Kostaldean ez eraiki”.
- “Familia bakarreko etxebizitzak. Gehienez 4 solairu. Lorategiak”.
- “Lekua badago, tradizioa mantendu. Lekurik ez dagoenez, etxe berriak egin”.
- “Ez dut barrualdearen eta kanpoaldearen artean ezberdintasunik ikusten. Bakoitzak nahi duen moduko etxea izan dezala, betiere, zainduta eta txukun badago. Txabolak debekatu. Errepide bidezko lotura gehiago eta hobeak behar ditugu”.
- “Ez da esan behar dena berdina izan behar dela. Oso modernoa izanik ere, polita izan daiteke. Gauza zaharrak imitatzen dituzten baserriak itsusiak iruditzen zaizkit, benetakoak ez direla nabaritzen da”.
- “Orain dagoen moduan. Ez zaizkit gustatzen Versailles bezala putzu eta zutabez betetako lorategiak egiten dituzten baserriak”.
- “Ez da garrantzitsua. Ez dakit”.

- “Hemengo estiloarekin jarrai dezatela, eta ez daitezela bi solairu baino gehiago eraiki”.
- “Herri bakoitzak bere ohiturak dituenek, bakoitzak bereak zaindu eta landu beharko ditu. Ez da gauza bera arrantza-herri bat edo barrualdeko herri bat. Niretzat oso garrantzitsua da paisaia ondo zainduta egotea, eta Urola eskualdean, arreta gehiago jarri beharko genioke Urola ibaiari, nahiz eta azken urteotan ibaiaren ibarra ondo zaindu den”.
- “Zumaiako balore ekologikoak zainduz edo atzerapausorik eman gabe, eta material ekologikoak erabiliz (antzeko itxura dutenak). Iparraldeko etxeak hartu eredutzat”.

Ondorioak

- Konponbide teknikoak, estetikoak eta lurperatzea dira azpiegitura handiek utzitako aztarnak murrizteko jaso diren proposamenak. Inkestatu batzuek uste dute azpiegiturak ez direla arazo bat.
- Pintura, multzokatutako seinaleak, argiteria, landaredia eta araudia dira, besteak beste, hiriguneetatik gertu dauden zerbitzuguneen itxura hobetzeko aipatu diren diseinu-irizpideak.
- Eraikuntza-ereduari dagokionez, hainbat ikuspuntu daude: batzuen ustez, tradizioa mantendu behar da; beste batzuen arabera, aldiz, paisaiak eboluzionatu egin behar du, eta, ondorioz, eraikin motek ere bai. Inkestatutako jendearentzat errazagoa da zer ez den egin behar esatea, erabili beharko litzatekeen erakuntza-ereduari dagokionez jarraibideak proposatzea baino.

PARTAIKETZA MAHAIK eragileekin eta herritarrekin

1. fase eta 2.fasea

Fase ezberdinetan lortutako emaitzak alderatu eta eztabaidatzeko partaidetza-mahaiak

Helburuak

- Zuzeneko elkarrizketak eta galdeketak egin ostean, fase bakoitzean lortutako emaitzak alderatzea.
- Ereku funtzional ezberdinetako ikuspuntu interesgarriak eta kezkek antzeman.
- Bi orduko zuzeneko bilerak **eragileekin (goizez) eta herritarrekin (arratsaldean)**, hiru eremu funtzionaletan eta bi etapetan. Aukeratutako ordelegiaren helburua zen kolektiboek parte hartzeko aukera ematea.
- **Bileren egitura:**
 - Lehenengo zatia: testuingurua adierazi eta Katalogoaren garapena zein herritarren parte-hartzetik ateratako ondorioak azaldu.
 - Bigarren zatia: bertaratu direnekin alderatu.
- Bilera guztietan **jaso ziren** egindako **ekarpenak** (bileren akta).
- Bileren formatua malgua izan zen eta ekarpenak jasotzea izan zen asmoa. Parte-hartzea arina eta ordenatua izan zen kasu guztietan, eta mahaien inguruetan esertzea planteatu zen arren, bertaratuak adierazi zuten nahiago zutela **eztabaidatzeko foroaren formatua**.
- Deialdiak email eta telefono bidez egiten dira eta bileretara bertaratzeko direnek ere bide horiek erabili behar dituzte jakinarazteko. Herritarren kasuan, batzuetan ez da apuntatutako inor joaten, eta, beste batzuetan, parte-hartzaileak alde aurretik joango direla jakinarazi gabe bertaratzeko dira. Deialdiekin batera, bilerak baino aste bete aurretik gutxi gorabehera, irakurtzeko agiriak erantsi ziren, parte hartzeko oinarria izate aldera.
- Bileretan jasotako inputekin eremu funtzionalen hasierako agiriak amaitu ziren.

Partaidetza mahaiak	Arabako Errioxa	Enkarterri	Urola Kosta	GUZTIRA
Pertsonak	90	119	47	256

256 pertsonak hartu dute parte partaidetza mahaietan

Eragileak eta herritarrak ez datoz bat eskakizun mailari dagokionez

- Paisaiari buruzko Katalogoetatik ateratako gidalerroei dagokienez, eragileek eta herritarrek ikuspuntu ezberdinak adierazi dituzte hiru eremu funtzionaletan:
 - **Eragileak:** arauen inposaketa saihestu behar dela azpimarratu dute, eta ezinbestekotzat eta lehentasunezkoztat jotzen dena besterik ez arautzea eskatu dute; beste gai guztietarako, gidalerroak gomendioak izan daitezela eskatu dute.
 - **Herritarrak:** paisaia babesteko neurri gogorragoak eta neurriok betetzen diren edo ez ikusteko kontrol gehiago eskatu dituzte. Azpimarratu dute beharrezkoa dela paisaiaren inguruan gehiago sentsibilizatzea eta haurtzaroan nahiz gaztaroan heztea. Gauza bera nabarmendu dute natur guneetan izan beharreko jarrerari buruz ere.
- Eragileekin egindako bileretan ikusi zen politikarien presentzia beharrezkoa zela zenbait gairi erantzuna emateko (mahai instituzionaletan, bederen). Eragileek eskatuta, Arabako Errioxan beste hiru bilera egin ziren, eta Enkarterrin, beste bat.



Partaidetza mahaietako parte-hartzea 1. fasea

Arabako Errioxa (2011 AZA 22)	Arabako Errioxa 2 (2011 ABE 12)	ENKARTERRI (2011 AZA 23)	ENKARTERRI (2012 URTAR 9)	UROLA KOSTA (2011 AZA 24)
ERAGILEAK (23)	Eragileak (19)	ERAGILEAK (23)	Eragileak (20)	ERAGILEAK (21)
HERRITARRAK (14)		HERRITARRAK (22)		HERRITARRAK (4)
37	19	55	20	25

156



Partaidetza mahaietako parte-hartzea 2. fasea

Arabako Errioxa (2012 otsailaren 27a)	Arabako Errioxa 2 (2012 martxoaren 13a)	ENKARTERRI (2012 martxoaren 6a)	UROLA KOSTA (2012 otsailaren 22a)
ERAGILEAK (18)	Eragileak (5)	ERAGILEAK (24)	ERAGILEAK (12)
HERRITARRAK (11)		HERRITARRAK (20)	HERRITARRAK (10)
29	5	44	22

100



5- Ekintzak eta emaitzak



Partaidetza mahaietan EGINDAKO PROPOSAMENAK 1. etapa		
Arabako Errioxa (AZA 2011)	ENKARTERRI (AZA 2011)	UROLA KOSTA (AZA 2011)
ERAGILEAK (8)	ERAGILEAK (11)	ERAGILEAK (8)
HERRITARRAK (8)	HERRITARRAK (25)	HERRITARRAK (7)
16	36	15

Partaidetza mahaietan EGINDAKO PROPOSAMENAK 2. etapa		
Arabako Errioxa (OTSAILA 2012)	ENKARTERRI (OTSAILA 2012)	UROLA KOSTA (OTSAILA 2012)
ERAGILEAK (13)	ERAGILEAK (22)	ERAGILEAK (17)
HERRITARRAK (10)	HERRITARRAK (13)	HERRITARRAK (10)
23	35	27

152
proposamen
egin dira

Jarraian jaso dira egindako proposamenak.



Herritarren parte-hartzea Paisaiari buruzko Katalogoak eta Gidalerroak lantzerakoan

1. etapa. Paisaia identifikatu, ezaugarritu eta ebaluatu

Partaidetza mahaien txostena

2011ko azaroa

GUARDIA (azaroaren 22a, Guardiako Kuadrilla)

SAIO INSTITUZIONALA (11:30-13:30): PROPOSAMENAK

1. **GUARDIA- ARABAKO ERRIOXA** izena jartzea proposatu da, baina azkenean ez du aurrera egin.
2. **Olibondoa sustatzeko gidalerro** bat jartzea proposatu da, aniztasun handiagoa lortze aldera.
3. Ebroko terrazak: **unitate hau berrikustea** proposatu da, Assa eta Oionen inguruko oharrak egin baitituzte.
4. Los Valles, Ekora, Gorrebusto, Labraza eta Moredako Konplexu Unitatea: unitatearen beheko aldea **handitzea** proposatu da, olibadian sartzeko.
5. **Bastida, Guardia eta Eltziego**: Melissaren arabera, hiru gunek unitate bakarra osatzen dute, baina badirudi Bastidak nortasun ezberdina duela, beste biek bezala. Ondorioz, **banatzea proposatu da. Proposamena sartu da.**
6. **Industriako pabiloiak izkutzea edo inguruan zuhaitzak jartzea proposatu** da, duten eragina izugarria baita
7. Pabiloiekin egiten den **espekulazioa saihestea** iradoki dute, haietako asko hutsik dauden arren.
8. Katalogoaren elaborazioa alde bakarrekoa dela uste dute, euren interesetan eta bizimoduan izan ditzakeen ondorioengatik kezkatuta daude eta Eusko Jaurlaritzari erantzun/ikuspuntua komuna emateko bilera egin nahi dute. Guardiako Kuadrillan abenduaren 14an beste bilera bat egiteko eskatu dute. Asmoa da Paisaiari buruzko Katalogoen ekimena aurkeztea eta diagnostikoa baliozkotzea. Adierazi dute ez dakitela euren ekarpenek zertarako balio izango duten eta lotesleak izango diren ala ez. Ekonomikoki garai zailak direnez, uste dute zehaztutako ekintzak ez direla abiaraziko. Indarrean dauden LPPen betearazpenari dagokionez, adierazi dute ez daudela pozik. Horrengatik dira, hain zuzen, eszeptikoak katalogoekiko.

Parte hartu duten eragileak

1. ETAPA Izena	Erakundea	Kargua
Joseba Fernández Calleja	Kripan	Alkatea
Ignacio Gil Orive	Bastida	Alkatea
José Manuel Amezaga	Guardia	Alkatea
Alfonso González	Lantziego	Alkatea
Inmaculada Laredo	Leza	Alkatea
Miguel Ángel Bujanda	Moreda Araba	Alkatea
Miguel Ángel Fernández	navaridas	Alkatea
Rubén Garrido Ramírez	Oion	Alkatea
Juan José García Berrueco	Eskuernaga	Alkatea
Iñaki Ibáñez	Ekora	Alkatea
Jokin Villanueva	Guardiako Kuadrilla	Presidentea
Luis Ignacio Hernández	Mañueta	Udal arkitektoa
Jesús Bauza	Eltziego	Nekazaritza eta Ingurumen zinegotzia
Santiago Bermúdez	Bilar	Zinegotzia
Gorka Mauleón	Lantziego	Alkateordea
Garikoitz Eguiluz	Leza	Zinegotzia
Patxi García Ruiz	Samaniego	Zinegotzia
Mercedes Ibáñez	Ekora	Jaietako zinegotzia
Aitor Senar	Tokiko Agenda 21	Koordinatzailea
Juantxu Martínez	Arabar Errioxa irratia	Kazetaria
Rafael Fernández	UAGA	
Yolanda Zabala	ABRA	
Violeta Abad	Amigos de Laguardia	Presidentea
Pablo Gamiz		Ingurumen zerbitzua

24 parte-hartzaile

HERRITARREKIN EGINDAKO SAIOA (19:00-21:00): PROPOSAMENAK

1. Olibondoaren hazkuntza sustatzea proposatu da (laboreak, ekonomia eta paisaia dibertsifikatzeko).
2. Pikondoaren eta almendrondoaren hazkuntza sustatzea proposatu da.
3. Energia eolikoak, kutsatzen ez duena, sustatzea.
4. Ureztapen putzuak zuhaitzekin inguratzea (kamuflajea) eta garbitzea proposatu da, eta gidalerroetan, Eusko Jaurlaritzari eska dakiola putzuan egingo den obraren jarraipena egiteko. Eskakizuna ingurumen-eraginari buruzko adierazpenean.
5. Bastida Guardiatik eta Eltziegotik banatzea proposatu da. Bastida eta Guardia ezberdinak dira. Eltziegok hedapen urbanistiko handiagoa du. Horrenbestez, hiru udalerriekin paisaia unitate bakarra ez egitea proposatu dute.
6. Gidalerroetan honako hau adierazteko eskatu da: mendilerrotik distantzia jakin bat utzi behar da, mendilerrotik gune jakin batean upategirik eta horrelakorik ez eraikitzeko.
7. Ezpondak direla-eta haserre daude, eta adierazi dute Viñarreal CVNE upategiak eragin handia duela paisaian.
8. Lurraldearen ikuspegi globala dute eta eskualdea nahiko ondo ezagutzen dute. Askotan adierazi dute agintari eskudunek kontrolatu egin behar dutela araudia betetzea nahi bada. Nabarmendu dute paisaiaren epe luzerako errentagarritasuna bakarrik lortu nahi dela, eta beharrezkoa dela paisaiaren kultura irakastea, paisaia norberaren produkziarako bide moduan ikusteari utzi behar diogula eta guztion ondasunaren inguruan sentibilizatu behar dela.

Parte hartu duten herritarrak

1. ETAPA Izena	Erakundea	Kargua
Estibaliz Saenz Mintegui	Arabar Errioxa irratia	Kazetaria
Ana M ^a Villarreal	Eltziego	Turismo Bulegoa
Toño Gainzarain	Billar	Udaltzaine
Oskar Okariz		Maisua
Estibaliz Besa		Andereñoa
Aitor Badiola	Basati mendi elkarte	Presidentea
Marimar Duran	Amigos de Laguardia	
José Miguel Cuesta		
Salvador Velilla		Historialaria eta idazlea
Alfredo calleja	UAGA	
Miriam Elorza	Itsasmendikoi	
Hector Eraso	Enoaventura	
Alberto Querezazu	Palomares mendi elkarte	
Roberto Martínez	Palomares mendi elkarte	

14 parte-hartzaile

ENKARTERRI (azaroaren 23a, Zalla)

ERAGILEEKIN EGINDAKO SAIO INSTITUZIONALA (11:30-13:30): PROPOSAMENAK

1. Karrantza Lanestosari lotu behar zaion edo ez eztabaidatu da.
2. EHNEk proposatu du heltzea zaila den lekuetan pinuak eta eukaliptoak landatzea, eta ez lautadan; izan ere, abeltzainek bazka lekuak behar dituzte.
3. Enkarterri osorako paisaia unitate bakarra egitea iradoki da, baliabideak denen artean lortu ahal izateko; izan ere, administrazioak ez dira eurekin gogoratzen. Enkarterriko integrazio ekonomikoa lortzea, paisaia garatzea lurralde osoari baliagarri izango zaion paisaia eredu ona zein ekologikoa lortzek.
4. Azpimarratu da beharrezkoa dela Enkarterriko ondare aberatsa balioestea eta babestea.
5. Panpa-lezkaren kontua konpontzeko eskatu da, inork ez baitu ezer egiten. Galdamesek landare inbaditzaile bat du.
6. Basogintza elkarteek eta EHNEk paisaiari buruz hitz egiterakoan errealitate sozioekonomikoa kontuan izateko eskatu dute. Paisaiaren aldaketa garapen sozioekonomikoarekin eta bizimoduarekin lotzen dute.
7. Basoen errentagarritasunari buruz hitz egin dute. Paisaia Enkarterriko biztanleen jarduera ekonomikoari eta bizimoduari lotuta joan behar da
8. Galdames – Sopena paisaia unitatea: zalantzak mendikatearekin, Urrestietarekin.
9. Sopenak –meatzaldea- Castañorekin bat egin dezala eskatu dute; izan ere, inguruan dituzten plantazioak/zuhaiztiak berdin-berdinak dira.
10. Ondarea babestu (erromatarren galtzada, indianoen etxeak). Inbentarioa egin eta zaindu.
11. Katalogoek eta gidalerroek euren interesetan eta bizimoduan izan ditzaketen ondorioekin kezkatuta daude. Urtarrilaren 9an Zallako Antzokian beste bilera bat egiteko eskatu dute, diagnostikoa baliozkotzeko. Eskualdeko egoeraz kezkatuta daude, gainbeheran eta zaharkituta ikusten dute eta.

Parte hartu duten eragileak

1. ETAPA Izena	Erakundea	Kargua
José Ignacio Iglesias	Artzentales	Alkatea
José M ^a Martín Iparraguirre	Karrantza	Alkatea
José Ángel Ranero	Lanestosa	Alkatea
Joseba Andoni Llaguno	Sopuerta	Alkatea
José Manuel Coterón	Turtzioz	Alkatea
Guillermo Avanzini	Artzentales	Arkitektoa
Ignacio Gutiérrez del Olmo	Gordexola	Herrilan zinegotzia
Jokin Faraig	Gordexola	Gai Historikoetako funtzionarioa
Joseba García Lizarralde	Gueñes	Mendi arduraduna
Alicia Artech	Enkarter	Turismo teknikaria
Navar Ibarrondo	Sopuerta Aventura	Zuzendari-kudeatzailea
Pedro Abad	Karpin Aventura	Biologoa
Javier Pérez	EHE nekazarien sindikatua	
Manu Gómez Arredondo	EHE nekazarien sindikatua	
Gloria Dehesa	EHE nekazarien sindikatua	
Fernando Navales	Ubietamendi MT	Presidentea
Mónica Alonso	Enkarterrialde	Tokiko Agenda 21
Kerman López	Goienkarterriko parrokiak	Enkarterriko bikarioa
Crsitina Mata	BFA Hirigintza eta udal Harremanen Saila	Lurralde Antolamenduaz arduratzen den arkitektoa
Jose Manuel Alonso Arana	BFA Hirigintza eta udal Harremanen Saila	Teknikaria
Javier Moreno	EJ Ingurumen eta Hirigintza Saila	Aholkulari juridikoa
Martín Uriarte	Lorra	Zuzendari-kudeatzailea
Fernando Azumendi	Bizkaiko Basogintza Elkartea	Zuzendaria

23 parte-hartzaile

HERRITARREKIN EGINDAKO SAIOA (19:00-21:00): PROPOSAMENAK

1. Lanestosako gunea bitan banatu. Lanestosak badu berezko nortasuna, nahiz eta Karrantzari lotuta egon, eta aparte kudeatzea merezi dute. Unitatea Armañon-Alen deitu dadila. Turtzios eta Artzentaletan lotu. Kalera Ordunten sartu.
2. Itsaslabarrak eta kareharriak balore gisa. La Guanaz parketik kanpo geratu da. Ez banatu arkua.
3. Kolitzako gailurra Balmasedan bildu, ez ebaki. Ez sartu Garbea Ordunten.
4. Cadaguako arroan ez litzateke poligono bat egin behar.
5. Turtzioz Ordunteri lotu. Otxaran Turtziozi edo Sopuerta-Galdamesi lotuta. Kolitzari Leguineako gunea, Las Tablasekoa sartu.
6. Erdiko mendien arteko paisaia-unitatea pixka bat behartuta dago. Galdames-Sopuerta bat bakarra eta Las Muñecaseraino heldu. Alen gunea sartuko nuke, gune zaharrak. Meatzeen unitate historikoa. Grumeran-Eretza banatu eta kareharrizko meatzaldea eta plantazioa eta eskuineko aldea hurrengora. Mugakideekin lotu.
7. Armañon Alen gunea oso paisaia unitate handia da, Eretzarantz luzatu. Elkargunea: Mello mendia.
8. Cadaguako harana konplexua da. Unitate txikiagoak atera, biztanleriaren % 80 hor baitago eta horiek baitira gozatuko dutenak. Unitate hau sakonago aztertu eta Gordexolari lotu, historikoki bizitza berdina ulertu dute eta. Zalla-Balmasedak eta Gordexolak Cadaguako gunea eta ibaiadarrak partekatzen dituzte. Gordexola sartu eta gero unitate txikiagoak atera. Gune kosmopolita da eta merezi du unitateak egitea; izan ere, horrela pisu gehiago izango dute paisaiari erasotzen zaionean. Behin gunea aitortuta, unitate bat eta erreferente bat sortu babestutako natur guneen inguruan. Merezi du bereziki arreta jartzea, jendea hortxe bizi da eta. Errekastoa nabarmendu bere balio agroekologikoagatik, haraneko garrantzitsuena da. Kontuan hartzen diren poligonoak hutsik daude eta ematen du hilerriak direla. Lur hori galtzea nork bere buruaz beste egitea da, eta baliabidea agortzen ari gara.

9. Poligonoen kota igo Zallako baratzeetan. Ez jarri ibarretan eta gainezka egin dezaketen guneeetan. Zentzugabekeria izango litzateke industriako lurraren aldeko apustua ez egitea baina beste kota batzuetara igotzea nekazaritzarako lurak kentzen ari garelako. Arroa da Enkarterriko motorra.
